

Musika

Orientabide didaktikoak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURKIBIDEA

1.- Dokumentuaren xedea	2
2. Irakasgaiaren ezaugarriak	3
3. Irakasgaiak gaitasunak garatzeari egiten dion ekarpena	6
4. Curriculumeko elementuen eta oinarrizko gaitasunen arteko harremana	15
5. Orientabide didaktikoak	18
5.1 Irakasgaiaren berezko metodologia	18
5.2. Irakaslearen eta ikasleen egitekoa	21
5.3 Ikasgelaren kudeaketa	22
5.4 Espazioa eta denbora	24
5.5 Baliabideak eta materialak	25
5.6 Jarduerak antolatzea	27
5.7 Edukietan lehentasunak ezartzeko irizpideak	31
5.8 Ebaluaziorako orientabideak	32
6. Materialen ereduak eta sekuentzia didaktikoak	36
7. Erreferentzia bibliografikoak	39

1. DOKUMENTUAREN XEDEA

Curriculumean oinarrizko gaitasunak sartzek hezkuntza berriro planteatzeko bidea ireki digu; horri esker, ikasleak jardunbideak garatzera bideratu ahal izango ditu ikasketak, eta egoera berriei aurre egiteko gaitasunak eskuratuko ditu.

Hezkuntzak eman beharko lituzkeen emaitzak hezkuntza-aldiaren barruan irakasten diren irakasgaiekin zuzenean loturiko jakintza-sorta lortzea baino gehiago da. Baina irakasgaiak ez dira oinarrizko gaitasunak garatzeko eta lortzeko bide bakarra. Helburu bera lortzeko beste faktore batzuk ere badaude; esaterako, ikastetxea antolatzeko modua, jarduera osagarriak, eta abar. Oinarrizko gaitasunak garatzeko lanean zeresana dute beste eragile batzuek ere, hala nola familiak edo gizarteak berak, pertsonak ezin baitira oso-osorik garatu eskola-giroan bakarrik.

Ikasleen zein irakasleen funtzioa modu adierazgarrian aldatu behar da baterako ekintza hori eraginkorra izan dadin. Lehenengo zeregina beren ikaste-prozesuaren eraikuntza kudeatzea eta bizi dituzten prozesuei buruz hausnartzea izango da, eta bigarrenek testuinguru irekiagoetan mugitu beharko dute eta ikasketa funtzionalagoak eskaini.

Prozesu horretan, ikasleei curriculumaren bitartez oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko abian jartzen den orientazio didaktikoa erabakigarria izango da. Hortaz, curriculumen gaineko dekretuetan islatu den ikuspegiarekin koherente izaten saiatuz, hezkuntza-praktikara hurbiltzea da gure helburua orain. Horretarako, ondoren jorratuko dugun dokumentuan, curriculum oinarrizko gaitasunak barnean hartuko dituen ikuspegia aintzat hartuta garatzen lagunduko duen esparrua ezartzeko esfortzua egin dugu, eta horretarako, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren hainbat alderdi jorratzen saiatu gara.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da irakasteko eta ikasteko prozesuari buruz garapen koherentea egiten lagunduko duten zenbait orientabide metodologiko eta didaktiko eskaintzea; orientabide horiek, aldi berean, gaitasunetan oinarrituriko ikuspegia bermatu beharko dute.

Ikasgelako eguneroko jardunean oinarrizko gaitasunen ikuspegia txertatzeko nahiarekin aurkeztu ditugu orientabide didaktiko hauek. Orientabideok musika-irakasgaiari daude lotuta, baita haren metodologiei eta ikuspegi honetarako beharrezko ebaluazio-prozesuei ere.

Orientabideon asmoa irakasleei ikaste-prozesua antolatzeko laguntza ematea da, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko musikako curriculumean jasotako printzipioak errespetatuta. Beraz, irakasgaiaren helburu orokorrak eta oinarrizko gaitasunak lortzera bideratuta daude.

Orientabideen abiapuntua ikaskuntza aktiboaren printzipioak onartzea da; printzipio horiek irakasteko eta ikasteko prozesuaosatzen duten aldagai metodologikoen inguruko ataletan garatuko dira.

2. IRAKASGAIAREN EZAUGARRIAK

Musikaren testuingurua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburua pertsonen gaitasunak erabat garatzea da, hau da, pertsonen gaitasun fisikoak eta mugitzeko gaitasunak, kognitiboak, komunikatiboak, sozialak eta afektiboak garatzea, orobat bizitza osoan garapen eta errealizazio pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta lanerako beharko dituzten oinarriko gaitasunak garatzea.

Hala, musika derrigorrezko prestakuntza orokorraren barruan dago, eta pertsonen hezkuntza integralerako ezinbestekoak diren ezagutza kultural, tekniko eta metodologikoak ekartzen ditu.

Kultura musikala eraikitzeko, musika-lanak entzun, interpretatu eta sortu egin behar dira, lanak, horien inguruneak eta erreferentzia eta teknikak, lengoaiak eta adierazpideak ezagutze aldera. Esperientzia estetikoaren bidez gauzatutako kultura-eraikuntza horrek gure mundua ulertzen eta giza eta gizarte-erlazioak aberasten laguntzen du.

Musika-hezkuntzaren ingurunea etengabe eboluzionatzen ari da, ez aldaketa teknologiko itzelengatik soilik, baita gure garaiko musika-sarea gero eta pluralagoa delako ere. Musika askok betetzen dute gure bizitzako soinu-espazioa; hori dela eta, garrantzitsua da gure inguruan daukagun kulturez haratagoko agertokia ulertzea.

Musika ezagutarazteko bideak ere aldatu egin dira, eta nabarmen aberastu. Kontzertuez eta fonografia ugariaz gainera, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta Interneten mundu polifazetikoak nabarmen ugaltu dituzte soinu-agertokiak...

Soinuen munduak etengabe eragiten du gure eguneroko bizitzan. Musika, zarata eta soinuak etengabe daude gure bizitzan eta musikaren irakaskuntzan tradizionalki erabili izan diren planteamenduez haratago geratzen diren baliabideak eta kontzepzioak garatu dituzte.

Musika sortzeko eta ezagutarazteko baliabideek musika sortzeko eta ezagutarazteko aukera ugari ireki dituzte, eta, aldi berean, merkatuaren efektuak eta masa-kulturaren eragina indartu dituzte, balorazio estetiko kritiko eta hausnartuaren kalterako.



Gure mundu globalizatuan, beharrak eta interesak aldatu egin dira. Komunikazioaren arloan gertatu diren aldaketa ugarienez gainera, balore-sisteman, denbora librearen erabileran eta ingurumeneko elementuekiko harremanean (artistikoak barne) eta horiek betetzen duten funtzioan irizpide berriak gehitu dira.

Beraz, hezkuntzak errealitate hori kontuan hartu behar du eta erreferente kultural eta teknikoak barne hartu behar ditu, entzuteko eta adierazteko gaitasunak garatzeko, soinu- eta musika-inguruneen gaineko pertzepzioa eta espiritu kritikoa sustatuta.

Curriculumaren inguruko gogoetak

Aurretiko hausnarketa horien ondoren, uler daiteke bigarren hezkuntzako curriculum nola antolatu den, ikasleek oinarrizko erreferenteak barneratu ditzaten eta, horrela, musikaren dimentsio kulturalari buruzko hausnarketa sustatzeko, eta orobat musika adierazteko, sortzeko eta komunikatzeko bide gisa erabiltzea sustatzeko. Halaber, gai horri buruzko helburuak garatzearekin, eskuragarri dauden hedabide musikalak nahiz musikari loturiko informazio kultural eta estetikoak espiritu kritikoz erabiltzeko beharrezko tresnak eskaini nahi dira.

Hori guztia, bigarren hezkuntzako musikako curriculumean hainbat proposamen musikalki deskubritzea eta esploratzea proposatzen delako, bai entzutearen eta analizatzearen bidez, bai proposamenak banaka nahiz taldeka interpretatzearen eta sortzearen bidez. Proposamen horien harira, Bigarren Hezkuntzako curriculumean, musikaren esparruan ikus-entzunezko hedabideek eta teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak ezagutzea eta erabiltzea ahalbidetzen duten zenbait eduki esplizituki barne hartzen dira, horien bidez proiektu artistikoak gauzatzera zuzendutako ikerketa, esperimendazioa, espiritu kritikoa, sormena eta lantaldeen sorrera errazteko.



Musikaren curriculumak hiru ardatz nagusi dauzka, eta horien inguruan antolatuta daude helburuak, edukiak eta ebaluazioak. Honako hauek dira ardatzak: soinuaren pertzepzioa eta balorazioa; interpretazio eta sorkuntza musikala; eta kultura musikala eta artistikoa eraikitzea.

Horrela, musikako curriculumak garatzeko orduan, esperientzia musikalak bizitzea ahalbidetzen duten praktikak garatu eta sustatu behar dira, pertsonok ekintza artistikoei eta kultura musikalarari aurre egiteko ditugun moduen arteko orekatik abiatuta: dimentsio produktiboa (soinuen bidez adieraztea, sortzea, komunikatzea, eta abar) eta hausnarketa-dimentsioa (soinu-kulturako produktuak ezagutzea, entzutea, analizatzea, interpretatzea), hori guztia entzumen-balorazioaren, lanak entzutearen, erreperorioaren interpretatzearen, gorputz-adierazpenaren, inprobisazioaren eta sorkuntzaren bidez.



Bigarren Hezkuntzako curriculumak garatzerakoan, musikaren espezifikotasunean sakontzen da, etapa honetan dauden ikasleengan pentsamendu kritikoa eta hausnarketa eragiteko. Horri esker, esperientzia musikalarari loturiko ikaskuntza garrantzitsua lortzen da, hainbat estilotako konposizioen, inprobisazioen eta banakako nahiz taldeko lanen bidez. Horren guztiaren atzean ondoko helburuak daude:

musikarekiko sentikortasunari bide ematea, ikasleak musikaren bidez komunikatu ahal izatea, ekintza musikala hobeto ulertzea eta musika estetikoki baloratzeko gaitasun handiagoa izatea, baita esperientzia musikalak asebetetze eta gozamen maila handiagoa eragitea ere.

3. IRAKASGAIK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENARI EGITEN DION EKARPENA

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.

Musika analizatzeak eta ulertzeak, bai pertzepzio aldetik, bai ekoizpen aldetik, gaitasun hori garatzen laguntzen du, metodo zientifikoari loturiko prozedurei bide ematen dielako, hala nola analisiari, ikerketari, esperimentazioari, deskubrimenduari, galderak formulatzeari, ondorengo hausnarketari, soluzioak planteatze eta kontrastatzeari, eta abarri.

Hauek dira irakasgai honetako eta arlo zientifiko-teknikoko beste batzuetako aztergaiak: soinuak eta musika, fenomeno akustikoak ezagutzea (soinuak sortzearen fenomeno fisiko harmonikoa, tresnen eta ahotsaren konfigurazio fisikoa, soinu-ekoizpena osatzen duten elementu gisa).

Espazio fisikoko soinuari eta musikari, musikaren erabilera eta funtzioei, soinuari eta isiltasunari, giza jarduerak musikaren erabilerarekin eragiten dituen aldaketei, lortzen diren soinu-paisaiei, eta ingurumenean, osasunean eta pertsonen bizi-kalitatean duen eraginari buruzko analisiaren eta hausnarketaren bidez, musikaren erabilera bereizi gabearen, soinu-gehiegikerien eta soinu-kutsaduraren arazoan inguruan kontzientzia hartzen da.

Musikak, gainera, ahotsa eta gorputza erabiltzen ditu adierazteko bide gisa. Musika esploratzeari, deskubritzeari eta behar bezala erabiltzeari buruzko edukiak garatzeak bizitza fisiko eta mental osasuntsua izateko ahalmena errazten du. Beraz, irakasgai honetan, osasunaren zaintza ikuspegi indibidual eta kolektibo batetik lantzen da, besteekiko eta norberarekiko jarrera arduratsu eta adeitsua agertzea ahalbidetuz, pertsonen bizi-kalitaterako elementu gako gisa.

Lan-proposamenak:

- Soinu-ekoizpenaren forma anitzei buruzko hausnarketa bultzatzea, ahotsaren, musika-tresnen eta soinu-objektuen funtzionamendu akustikoa ikertuta.
- Soinu eta musika-inguruneei buruzko pertzepzioa eta espiritu kritikoa trebatzea, horrela entzumeneko eta ahotseko kalteei aurrea hartzeko.
- Tresnak interpretatzeko entzumenaren, ikusmenaren eta ukimenaren arteko koordinazioa sustatzea, ahots-praktikan arnasketako eta soinu-igorpeneko abileziak sustatzea, eta dantzarako gorputzaren eta entzumenaren koordinazioa sustatzea, horrekin guztiarekin adierazpen musikalera zentzu global bat ekarrita.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Ikasten ikasteko, lehenik eta behin, ikasketa-prozesuari ekiteko gaitasunak eduki behar dira, eta gero eta modu eraginkorragoan eta autonomoagoan ikasten jarraitzeko gai izan behar da, norberaren helburuei eta bearrei jarraiki.

Musika irakasgaiaren bidez eta, batez ere, banakako nahiz taldekako interpretazio-jardueren bidez, ikasleak beren gaitasunez eta horiek garatzeko prozesuaz eta estrategiez jabetzen dira, hala nola ikaskuntza-prozesuen kudeaketa eta kontrol eraginkorraz eta arduraren zentzua garatzeaz.

Irakasgai honetako lan-planteamenduek ikaskuntza sortzailearekin lotura estua dute, eta musika-irakaskuntzan erabiltzen diren estrategiez jabetzen laguntzen dute, hala nola arretaz, kontzentrazioaz, memoriaz, entzumenaz, koordinazioaz, planifikazioaz eta egoera edo arazo baten aurrean erantzun ugari emateko gaitasunaz.

Musika-hezkuntzako irakaskuntza-ikaskuntza egoeretan beharrezkoa da norberaren aukerez, ikaskuntza-estrategien erabileraz eta norberaren prozesuen kudeaketa eta kontrol eraginkorraz jabetzea. Kasu horietan guztietan, etengabeko motibazioa behar da proposatutako helburuak lortzeko, ikaskuntzarako norberarenganako konfiantzan oinarrituta.

Halaber, musika-hezkuntzak ikasten ikasteko gaitasunaren garapenean egiten duen ekarpenari loturik, nabarmentzekoa da interpretazio musikaleko eta entzumen-entrenamenduko jardueretan epe laburrean, ertainean eta luzean lortu beharreko helburuak daudela, eta horiek bete egin behar direla, ikaskuntzaren helburuak gutxika eta modu errealistan handituz.

Bestalde, banakako nahiz taldeko tresna- eta ahots-interpretaziorako ere beharrezkoa da ikaskuntzan saiaturia izatea, bizitza pertsonala eta soziala aberasten duen elementu gisa baloratzean oinarrituta, eta, era berean, beharrezkoa da nork bere burua ebaluatzeko eta erregulatzeko gai izatea, ardura eta konpromiso pertsonala izatea, ahaleginak administratzen jakitea, akatsak onartzea eta besteengandik eta besteekin ikastea.

Lan-proposamenak:

- Ikasteko eta norberaren prozesuen kudeaketa eta kontrol eraginkorrerako hainbat estrategia erabiltzea, norberak bai soinu-pertzepzioko lanetarako, bai interpretazio eta sorkuntzarako dauzkan gaitasunez jabetuta.
- Soinuaren osagaiak deskubritzera eta horiekin esperimenez, interpretazioan inprobisatzera, ideia musikalak aurrez ikustera... azken finean, ikasleek soinuen munduarekiko duten potentzial sortzailea garatzera bideratutako jarduerak planteatzea.
- Esperimentazioa sustatzea, proposamen musikal berriak bilatzeko eta sortzeko.
- Esploratzea, kontrastatzea, informazioa bilatzea,... eskatzen duten jarduerak sustatzea, eta beste horrenbeste egitea azterketa eta analisi kritikoa, bilatzeko eta informazioa kudeatzeko gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna, analitzatzeko eta laburbiltzeko gaitasuna, antolatzeko eta planifikatzeko gaitasuna eta komunikatzeko gaitasuna eskatzen duten jarduerekin.

- Lan-proiektu bat banaka edo taldeka planifikatzea eskatzen duten jarduerak antolatzea, asmo jakin batekin, faseak egituratuz eta horietara behar bezala egokituz.

Matematikarako gaitasuna.

Zeinuen eta orotariko grafien bidez, hala nola pentagramen, tablaturen, klabeen, noten, figuren, isiluneen, adierazpen metronomikoen, intentsitate-zeinuen eta bestelako adierazpen grafiko ezohikoen bidez ideia musikalak irudikatzea matematikarekiko erlazio handia agerian uzten duen elementu bat da.

Proiektu musikal askotan arazo teknikoak ebatzi behar izateak, lan musikal baten eraikuntzan parte hartzen duten elementuak identifikatu behar izateak, eta proportzionaltasunetik, simetrietatik, posizioetatik, neurritik eta denborarekiko erlaziotik deribatutako konposizio-baliabideek matematikako berezkoak diren pentsamendutresnak eta baliabideak erabili behar izatea eskatzen dute.

Musika irakasgaiaren proposatutako jarduerak eta lanak osatzen dituzten beste elementu batzuek ere pentsamendu matematikora etengabe hurbiltzea eragiten digute; besteak beste, soinu-altueraren eta maiztasunen arteko erlazioen analisiak, arrazonamenduak eta hausnarketak; tarte-erlazioek; modu eta eskalen bidezko soinu-antolaketak; eraikuntza musikalak; eskaletako graduen funtzioek; soinuak sistema modal, tonal eta atonaletan antolatzeak eta konbinatzeak; soinu-plano eta -proportzioek; tinbre-proportzioek; soinu-planoen antolaketak; erritmoak eta erritmo-proportzioek; neurriak; eta konpasak eta soinu-iraupeneko erlazioek.

Lan-proposamenak:

- Sorkuntza- eta interpretazio-jardueretan musika-patroien konponketak, egokitzapenak eta aldaketak egitea erraztea, lengoia musikaleko elementuak erabiliz alderdi guztietan eta horiek dagozkien partituretan edo musikako askotariko irudikapen grafikoetan irudikatuz.
- Lan musikaletan eta soinu-ekoizpenetan soinu eta sonoritateen antolakuntzako, irudikapeneko eta hedapeneko baliabideen identifikazioa planteatzea.
- Forma musikalaren egituraketan parte hartzen duten elementuen, proportzio-erlazioen eta simetriaren analisia sistematikoki planteatzea, musika-lan bat bana daitekeen zati, atal eta azpiatalak eskematikoki adierazteko erabil daitezkeen moduez baliatuz.
- Dantza-jardueretan, neurri, proportzio, posizio eta abarri loturiko arazoak sortzen dituzten espazio- eta denbora-antolakuntzen diseinu eta konfigurazioak bultzatzea...

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Musika irakasgaiaren hainbat alderdik lagun diezaioke hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari; esate baterako, ikasgelan sortzen diren komunikazio-trukeen

aberastasunak, truke horiek gidatzen dituzten arauak, egiten diren prozesuen azalpenak edota irakasgaiaren beraren hiztegi espezifikoak. Era berean, lan-prozedurak transkribatzerakoan, emandako soluzioak argudiatzerakoan eta lan artistikoa baloratzerakoan ere garatzen da gaitasun hori.

Landutako musika-lanak aztertzeko eta aipatzeko jardueretan, ikasleek kontzeptuak hitzen bidez adierazten, ideiak azaltzen, idatziz azaltzen eta argudioak ematen ikasi behar dute. Hizkuntza behar bezala erabiltzeak pentsamendu eta emozioak, bizipenak, ideiak eta iritziak transmititzea ahalbidetzen du; orobat, iritzia sortzea, ideiak sortzea, ezagutza egituratzea, ekoizpenei koherentzia eta kohesioa ematea eta ikaskuntzak entzunez, irakurriz edo ahoz nahiz idatziz banatuz gozatzea.

Ahots-musikak musika-ekoizpenaren zati garrantzitsu bat osatzen du. Garai guztietan sortu eta garatu diren ahots-forma ugarietan, hainbat hizkuntzako testuak erabili dira. Horrela, ahots-generoen analisiari eta praktikari esker, musikaren eta testuaren arteko erlazioa zenbait esparrutatik azter daiteke, eta testuaren izaera, generoa, zentzua, forma eta laneko funtzioa ikus daiteke, baita horren sonoritatea eta musikara egokitzeko duen tratamendua ere (polifonia, melismak, bokalizazioak, joko silabikoak, apaingarriak, eta abar). Halaber, instrumentazioari dagokionez, bien arteko orekak eta desorekak eta elkarrekiko eraginak analizatzen dira. Hori dela-eta, ahots-adierazpenaren eta kantuaren bidez, musikak hizkuntza integratzen du eta elkarrekintza horrek sortzen duen aberastasuna baloratzen du.

Lan-proposamenak:

- Lengoia tekniko musikal egokia erabil dadin sustatzea, ekintza musikalei, horien ezaugarriei eta testuinguruei buruzko ahozko edo idatzizko iritzi edo epaiak adierazteko..
- Deskribapen, analisi eta kritika musikalei, abestien letrei edo ahots-musikako libretoei buruzko testuak hainbat hizkuntzatan irakurtzea eta ulertzea sustatzea.
- Zenbait lanen analisia eta ulermena proposatzea, diskurtso musikalaren eta hizkuntza-diskurtsoaren artean paralelismoak ezarrita, zenbait funtzio formalen bidez, hala nola sarreraren, azalpenaren, laburpenaren, ondorioen eta abarren bidez....
- Musikari loturiko gaien inguruko eztabaidak egitea eta eztabaida horietan pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritzi pertsonalak adieraztea ahalbidetzea.
- Abestiak, ahots-piezak edo ahozko eta/edo idatzizko lengoaiak parte hartzen duten ekoizpen musikal txikiak zenbait bide eta testuingurutan berridaztea, aldatzea eta sortzea sustatzea.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Gaitasun hori garatzea informazioa bilatzeko, lortzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko gaitasunak izatean eta informazio hori ezagutza bihurtzean ere, hori baita gaitasun hori lortzeko oinarritzeko alderdietako bat. Hau da, informazioa eskuratzea eta, tratatutakoan, zenbait euskarritan transmititzea, informazioaren eta

komunikazioaren teknologiak informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko berebiziko elementu gisa erabilia. Orotariko teknika eta estrategiak erabiliz informazioa bilatzeari, hautatzeari, erregistratzeari eta tratatzeari lotuta dago. Horretarako guztirako, funtsean, oinarrizko lengoia espezifikoak ezagutu behar dira (testuala, numerikoa, ikonikoa, ikusizkoa, grafikoa eta soinuakoa).

Musikak gaitasun horren garapean egiten duen ekarpenak alderdi ugari ditu. Batetik, aztergaia soinuak direnez, soinu-lengoaiaren oinarrizko ezagutza ematen du, eta hori ikus-entzunezko eta multimedia euskarrietako oinarrizko elementua da.

Bestalde, autoikaskuntzako, komunikazioko, adierazpeneko eta sorkuntza musikaleko jardueretarako informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzeak gaitasun hori eskuratzen laguntzen du. Grabazio-teknikek, programa askok eskaintzen dituzten soinuak atzemateko, editatzeko, manipulatzeko eta grafikoki adierazteko aukerak, ordenagailu bidez partiturak editatzeak, hainbat soinu-formaturekin lan egiteak, entzumena trebatzeko eta tresna-akonpainamenduak sortzeko programek nahiz teknologiek multimedia-ekoizpenak sortzeko ematen dituzten aukerak direla-eta, musikaren ikaskuntzan eta irakaskuntzan orotariko egoera interaktibo eta sortzaileak planteatu daitezke.

Orobat, gaitasun hori garatzeko orduan, lagungarria da sareko eta bestelako ikus-entzunezko iturrietatik informazio musikala modu eraginkor, arduratsu, kritikoa eta gogoetatsuan bilatzea, eskuratzea, aukeratzea eta tratatzea, baita musika komunikatzeko, banatzeko, trukatzeko eta ezagutza eta sorkuntza musikalak argitaratzeko tresna gisa erabiltzea ere.

Lan-proposamenak:

- IKTak ekoizteko, inprobisatzeko, melodiak eta akonpainamenduak sortzeko, soinuak manipulatzeko, erregistroa gauzatzeko eta soinu-proposamenak trukatzeko erabil daitezkeen sustatzea, orobat soinuen sorkuntzari, adierazpenari eta hedapenari loturiko beste jarduerak batzuetarako.
- Multimedia konposizioak sortzea sustatzea: irudiei soinua jartzea, aurkezpenak, soinu-bandak, diziplina arteko proposamenak...
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabil daitezkeen sustatzea, musikaren zenbait alderdi bilatzeko, antolatzeke, kontrastatzeko, aukeratzeko eta horiei buruzko informazioa bilatzeko, musika ikasteko eta horretaz gozatzeko, kontzientzia kritikoarekin eta hainbat testuingurutan ohitura arduratsuak sortuz (hezkuntza, familia eta aisia).
- 2.0 webak eskaintzen dituen aukerak erabiltzea gai horri buruzko lankidetzaren inguruneetan lan egiteko: ikasgela-blogak, wikiak, linean partekatzen diren dokumentuak...

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Gaitasun horri esker, posible da bizi garen errealitate soziala ulertzea, gizarte plural batean lankidetzan aritu, elkarrekin bizi eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko.

orobat gizartea hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzea. Halaber, munduaren errealitate historikoa eta soziala, horren eboluzioa, lorpenak eta arazoak ulertzen laguntzen du.

Ekintza artistikoak ekoizten dituzten gizarteei lotuta daude, eta, hori dela eta, ezin dira ulertu jatorrizko kultura edo ekoizpen-inguruneak alde batera utzita: baloreak, gako ekonomikoak, ideologikoak, teknikoak, erlijiosoak, zientifikoak... Ikasgelan ingurune sozialek, kulturek eta esperientzia pertsonalek musikaren mundua ulertzeko eta interpretatzeko moduetan duten garrantzia lantzeak erraztu egiten du munduaren errealitate historiko eta soziala, horren eboluzioa, lorpenak eta arazoak ulertzea..

Arteak eta kultura musikaleko produktuek ez dituzte ekoitzi dituzten gizarteak soilik islatzen, banako eta taldeko identitateak osatzen ere laguntzen baitute. Irakasgai honetan, ekintza artistiko-musikalak ikuspegi horretatik aztertu behar dira, eta ez balore formal eta estetikoaren ikuspuntutik soilik; iraganeko eta gaur egungo garaietako kezka sozialei buruzko hausnarketak egitea ahalbidetu behar du.

Hauek dira gaitasun horretako trebetasun nagusietako batzuk: nor bere burua ezagutzea eta baloratzzea; hainbat testuingurutan komunikatzen jakitea; nor bere ideiak adieraztea eta besteenak entzutea; besteen tokian jartzeko gai izatea eta bere ikuspegia ulertzea, norberarenaren desberdina izanik ere; eta bizitza komunitarioko maila guztietan erabakiak hartzea, banako eta taldeko interesak batera kontuan hartuta.

Musika baliozko tresna da, bai bakarka komunikatzeko, bai taldean komunikatzeko eta adierazteko. Musikaren bidez, elkarrekin abestuz, tresnak batera joz, elkarrekin dantza eginez, taldea izatearen eta taldeko kide izatearen sentipena indartu egiten da. Eta, horrela, esperientzia musikal kolektiboetan parte hartzeak norberaren ideiak adierazteko aukera ematen du, orobat besteen ideiak baloratzeko eta norberaren ekintzak taldeko beste kideen ekintzekin koordinatzeko aukera; hau da, besteekin erlazionatzeko gaitasunak eskuratzen laguntzen du, aldi berean lankidetzaren bidez emaitza bat lortzeko ardura hartuta.

Musika ekintza soziala da, maila guztietan. Sorkuntza eta interpretazio musikala lan kolektiboko espazio bihurtzen da, eta, hor, zenbait balore sustatzen dira, hala nola errespetua, bizikidetzaren, tolerantzia eta elkartasuna, eta hainbat inguruetan komunikatzen, norberaren ideiak adierazten eta besteen ideiak entzuten, besteen tokian jartzen eta bere ikuspegia ulertzen, norberarenaren desberdina bada ere, orobat erabakiak hartzen, banako eta taldeko interesak batera kontuan hartuta. Errespetua, besteen lanak onartzea, musikaren bidez mundua ulertzeko eta berorri erantzuteko moduen balorazioa, hainbat kulturatan eta askotariko pertsonen artean, irakasgai honetan sustatzen diren eta gaitasun hau eskuratzea ahalbidetzen duten baloreak dira.

Lan-proposamenak:

- Taldeko proiektu musikalak gauzatzen laguntzea, errespetua, tolerantzia, bizikidetzaren eta lankidetzaren zainduz, proiektuen garapenerako eta emaitzak lortzeko oinarrizko ardatz gisa.

- Ondare kulturala –bai bertakoa, bai beste kultura batzuetakoa– osatzen duten adierazpen artistiko eta musikaletan parte hartzea sustatzea, eta askotariko ingurune sozial eta kulturaletako adierazpen gisa baloratzea.
- Talde-lan proposamenetan, plan adostuak ezartzea, lanak berdintasunez banatzea, eta gainerako kideen lana eta erritmoa errespetatzea sustatzea..
- Zenbait musika-lanen sorkuntza, erabilerak eta funtzioak hedabideetan zabaltzea eragiten duten faktore sozial eta kulturalak iker daitezen sustatzea.

Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.

Musika irakasgaiak zuzenean eragiten du gaitasun hori eskuratzen, berau osatzen duten alderdi guztietan. Adierazpen kultural eta artistikoak pertzepzio- eta adierazpen-esperientzien bidez ezagutzeko, estimatzeko, ulertzeko eta kritikoki baloratzeko gaitasuna sustatzen du, orobat kultura, garai eta estilo askotariko musika ulertzekoa. Horrela, jarrera ireki eta adeitsuak sustatzen ditu eta manifestazio artistikoen aurrean iritzi oinarrituak izateko elementuak eskaintzen ditu, beste lengoia artistiko batzuekin eta lan bakoitza sortzen den ingurune sozial eta historikoarekin konexioak ezarrita.

Gaitasun artistikoan barne hartzen dira lengoia artistikoen eta ondare kultureko lan eta manifestazio nabarmenen teknika, eta baita baliabide nahiz ohitura nagusien oinarritzko ezagutzak ere. Gainera, manifestazio horien eta sortzen diren garaiko gizartearen, mentalitatearen eta aukera teknikoaren arteko harremana identifikatu behar da, edota sortzen dituen pertsona edo taldearekiko harremana. Horrek esan nahi du, era berean, pentsamenduaren, korrante estetikoaren, moden eta gustuen eboluzioaz jabetu beharra dagoela, baita faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen eguneroko bizitzan izan duten, eta oraindik duten, irudikapen, adierazpen eta komunikazio garrantziaz ere.

Gaitasun hau osatzen duten ezagutzen multzoa, batetik, artea eta beste manifestazio kultural batzuk ulertzeko, baloratzeko eta horietaz gozatzeko gaitasunarekin lotuta dago, eta, bestetik, lengoia artistikoetako zenbait baliabide norberaren sorkuntzak egiteko erabiltzearekin. Hortaz, adieraztea eta komunikatzea errazten duen gaitasun bat da, baina baita artearen eta kulturaren munduko askotariko errealitateak eta ekoizpenak hautematea, ulertzea eta horiekin aberastea ahalbidetzen duen gaitasun bat ere.

Oro har, ekintza kulturala eta, zehazki, ekintza artistiko eta musikala baloratzeko, askotariko manifestazioak ulertzea ahalbidetzen duten trebezia eta jarrerak izatea beharrezkoa da, eta orobat pentsatzeko, hautemateko eta komunikatzeko gaitasunak, sentikortasun eta zentzu estetikoak izan behar dira, horiek ulertzeko, baloratzeko, horiekin hunkitzeko eta gozatzeko.

Lan-proposamenak:

- Sorkuntza eta interpretazio musikarari loturiko jarduerak sistematikoki gauzatzea sustatzea, lengoia artistiko hori ezagutzeko oinarri gisa.

- Komunitatearen bizitza musikala ezagutzea eta horretan gauzatzen diren jardueretan parte hartzea sustatzea.
- Zenbait estilo, genero, joera eta kulturatako lan musikalen ezaugarriak onartzea eta erlazionatzea erraztea, ondare kulturalako eta kulturartekotasunean aberasteko iturri gisa.
- -Musikaren eta beste lengoaia artistiko eta ezagutza-arlo batzuen arteko erlazioak analizatzea eta ekoizpen artistikoen eta ikus-entzunezko hedabideen eta komunikabideen barruan duten funtzioari buruzko pentsamendu kritikoa eraikitzea.
- Askotariko espazio- eta denbora-ingurunetako musikekiko entzule eta interprete gisa dugun interesa eta gozamina sustatzea eta, horrela, ondorengo aukera pertsonaletarako funtsezko oinarri musikala ematea.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Musika irakasgaien garatzen diren jardueretan, ikasleek beren irizpideen arabera aukeratutako sorkuntza-proiektuak gauzatzen dira; norberaren autonomia eta ekimena bultzatzen dituzten lan kolektiboak eta banakako lanak egiten dira. Zehazki, tresna- eta ahots-taldeetan parte hartzea eta konposizio musikala aurretiazko planifikazioa eta emaitza desiragarriak lortzeko erabaki estetiko, estilistiko eta teknikoak hartzea eskatzen duten jardueren bi adibide argi dira.

Jarduera artistiko horietan, zenbait gaitasun eta trebezia garatzen dira, hala nola enpatia, norbere burua gainditzeko espiritua, autokritika eta autoestimua, elkarrekin eta modu malguan lan egiteko trebezia sozialak, sormena, konfiantza, ardura eta zentzu kritikoa; hain zuzen ere, faktore horiek berebizikoak dira aipatzen ari garen gaitasuna lortzeko.

Ikasleek jendaurrean lan musikalak, bokalak, instrumentalak, koreografiadunak edo mistoak interpretatzean zenbait jarrera garatzen dira, hala nola ardura, konpromisoa, kontzentrazioa, pertseberantzia, orobat autoestimua garapen edo sustapena, kontrol emozionala, norberarenganako segurtasuna eta ekimen pertsonala. Beraz, horretarako guztirako, proiektuen lidergoari, enpatiari, norbere burua gainditzeko espirituari, elkarrizketari, negoziazioari eta lankidetzari loturiko trebezia eta jarrerak garatu behar dira; hala, norberaren autonomiarako eta ekimenetarako gaitasunak nabarmen garatzen dira.

Lan-proposamenak:

- Sorkuntza eta interpretazio musikalarik loturiko jarduerak sistematikoki garatzea erraztea, aurretiazko planifikazioarekin eta emaitza desiragarriak lortzeko erabaki estetiko, estilistiko eta teknikoak hartuz.
- Musika-lanak sortzea sustatzea, baina horietan ikasleek ekoizle gisa, soinuak interpretatzen dituzten, erabakiak hartzen dituzten eta soluzioak beren irizpideen arabera aurkitzen dituzten subjektu autonomo gisa jardunda, beren buruari aurre egiteko beharra izanda.

- Taldeko lan-proposamenak bultzatzea; izan ere, taldeko lanak autoestimua eta norberaren identitatea berrestea ahalbidetzen du, emozioekin lan egiten du eta eskatutako lanean arduraz jardutea ahalbidetzen du, norberaren ideiak edo esperientziak ekartzeko aukera galdu gabe.
- Jendurrean lan musikalak, bokalak, instrumentalak, koreografiadunak edo mistoak interpretatzea erraztea, zenbait jarrera garatzen baitira, hala nola ardura, konpromisoa, kontzentrazioa, pertseberantzia, autoestimua garapen edo sustapena, kontrol emozionala, norberarenganako segurtasuna eta ekimen pertsonala..



4. CURRICULUMENKO ELEMENTUEN ETA OINARRIZKO GAITASUNEN ARTEKO HARREMANA

Derrigorrezko irakaskuntzako curriculumak hezkuntza-aldi honetako oinarrizko gaitasunak garatzeari loturiko gai edo ezagutza-arloen inguruan egituratuta dago. Musikako curriculumak, derrigorrezko irakaskuntza osatzen duten gainerako irakasgaien kasuan bezala, irakasgaiaren berezko helburuen bidez egituratzen da, gaitasunen (zer, nola eta zertarako), eduki-blokeen eta ebaluazio-irizpideen arabera, helburuen lorpen-maila baloratzeko balio duten adierazleen bidez. Elementu horiek guztiek oinarrizko gaitasunak garatzearekin lotura estua dute, eta horretara orientatuta daude.

Jarraian ageri den taulan, oinarrizko gaitasunen eta musika irakasgaiko helburuen arteko erlazioa ageri da:

-Musika irakasgaiaren oinarrizko gaitasunen eta helburuen arteko harremana

Oinarrizko gaitasunak
1. . Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna
2. Ikasten ikasteko gaitasuna.
3. Matematikarako gaitasuna.
4. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
5. .Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
7. Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Korrespondentzia maila handia 
 Korrespondentzia maila txikia 

Musikako helburuak	1	2	3	4	5	6	7	8
1. Musikak ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko eskaintzen dituen aukerak ulertzea, eta askotariko adierazpen musikalak errespetatzeko, ulertzeko eta baloratzeko gaitasuna sustatzea, Euskal Herriko eta beste herri batzuetako ondarearen funtsezko elementu gisa baloratzeko, eta horrek artea eta kultura ezagutzen, erabiltzen eta horretaz gozatzen laguntzea.								
2. Musikaren teknika, baliabide eta ohituren oinarrizko ezagutza lortzea eta autonomiaz eta segurtasunez erabiltzea analisisan, interpretazioan, sorkuntzetan eta norberaren erantzunak taxutzean. Horretarako, pentsamendu dibergente eta konbergenteko trebeziak, ekimena, irudimena eta sormena erabili behar dira, potentzialtasun espresibo eta sortzaileak garatzeko eta aberasteko, bai banaka, bai taldean.								
3 Norberaren lan musikalekiko konfiantza garatzea, horiek egitean gozatzuz eta norberaren eta taldearen hazkunderari egiten dion ekarpena baloratuz, autoestimua finkatzeko eta ideia eta sentimenduak adierazteko gaitasuna hobetzeko.								

4. Musikak hainbat estilo, genero, joera eta kulturatan erabiltzen dituen teknikak, baliabideak eta ohiturak analizatzea eta ezagutzea, ezagutzako, erreferentzia kulturalerako eta gozamen pertsonalerako iturri gisa ulertzeko eta baloratzeko; horrela, erreferente estetiko berriak garatzea ahalbidetzen da, Euskal Herriko ingurunea berariaz kontuan hartuta.									
5. Musikaren funtzio sozialak eta erabilerak eta beste lengoaia artistiko, ezagutza-arlo eta hedabideekin dituen erlazioak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperientzietan antzematea, hainbat denbora- eta kultura-ingurunetan bete dezaketen eta bete duten rola ulertzeko..									
6 . Hainbat informazio iturri (fonotekak, ikus-entzunezkoak, Internet, testuak, partiturak eta bestelako baliabide grafikoak) modu autonomo eta kritikoan erabiltzea eta kudeatzea, musika ezagutzeko eta horretaz gozatzeko..									
7 Hainbat ikus-entzunezko bitarteko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta erabiltzea, ekoizpen musikalerako, ikaskuntza autonomorako eta musikaz gozatzeko baliabide gisa, eta musika sortzeko, adierazteko eta hedatzeko modu berrien garapenean egiten duten ekarpena baloratzea..									
8. Hainbat ingurunetan garatzen diren proiektu musikal kolektiboetan parte hartzea, taldean askotariko funtzioak betez, eta taldeko lana planifikatzeko, lankidetzan aritzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko trebeziak garatzea, lankidetzaren eta norberaren garapen sozialaren emaitza gisa produktu artistiko on bat lortzeko.									
9 Musikak eta soinuak gure ingurunean nola erabiltzen diren eta zer funtzio duten zentzu kritikoarekin analizatzea, eta giza jarduerak horiek erabilita eragiten dituen aldagetei buruz hausnartzea, baita lortzen diren soinu-paisaiei buruz ere, ingurumenarekiko eta pertsonen bizi-kalitatearekiko ardurazko eta errespetuzko jarrerak garatzeko.									
10. . Euskal Herriko eta beste toki batzuetako ondare kulturalerako manifestazio artistiko eta musikalak ezagutzea eta baloratzea, adierazteko askotariko moduak kontserbatzen eta berritzen laguntzeko, betiere kultura askotariko pertsonen artean trukeak izatea aberasgarria dela jakinda..									

Eta jarraian, hurrengo taulan, dagozkion adierazleak biltzen dituen ebaluazio-irizpide baten eta horri lotutako helburuen eta garatu behar diren oinarrizko gaitasunen arteko harremana islatu dugu

- Ebaluazio-irizpide baten eta horrekin lotutako oinarrizko helburu eta gaitasunen arteko erlazioa

Ebaluazio irizpidea 3. kurtsoa	Helburuak	Oinarrizko gaitasunak
1. Ekintza musikalean erabiltzen diren teknika eta baliabideak identifikatzea, hainbat ingurune kulturalekin erlazionatuz.	1. Musikak komunikatzeko eta ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko eskaintzen dituen aukerak ulertzea, askotariko manifestazio musikalak errespetatzeko, ulertzeko eta baloratzeko gaitasuna sustatuz, Euskal Herriko ondareko funtsezko elementu gisa baloratzeko eta beste herri batzuetakoa,	- Ikasten ikasteko gaitasuna -- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.. Hizkuntza-komunikaziorako

<p>1.1. Egiten dituen jardueretan musika erabiltzen eta integratzen du.</p> <p>1.4. Arte-lanak transmititzen duen informazioan interesa du.</p> <p>1.5. Ekoizpen musikalaren eta ekoizpen hori aurki daitekeen testuinguruaren arteko erlazioak ezartzen ditu.</p> <p>1.6. Adierazpen musikala jakin batzuetako berezko teknikak identifikatzen ditu..</p> <p>1.7. . Behar duen material musikala behar bezala aukeratu du, uneko beharren arabera.</p> <p>1.8. Artelanean balore kultural interesgarriak hautematen ditu.</p> <p>1.9. Artelan jakin batek eragiten dion ekarpena adierazten du.</p>	<p>eta horrek artea eta kultura ezagutzen, erabiltzen eta horretaz gozatzen laguntzea.</p> <p>2. Musikaren teknika, baliabide eta ohituren oinarritzko ezagutza lortzea eta autonomiaz eta segurtasunez erabiltzea analisisan, interpretazioan, sorkuntzetan eta norberaren erantzunak taxutzan. Horretarako, pentsamendu dibergente eta konbergenteko trebeziak, ekimena, irudimena eta sormena erabili behar dira, potentzialtasun espresibo eta sortzaileak garatzeko eta aberasteko, bai banaka, bai taldeka.</p> <p>4Musikak hainbat estilo, genero, joera eta kulturatan erabiltzen dituen teknikak, baliabideak eta ohiturak analizatzea eta ezagutzea, ezagutzako, erreferentzia kulturalerako eta gozamen pertsonaleko iturri gisa ulertzeko eta baloratzeko; horrela, erreferente estetiko berriak garatzea ahalbidetzen da</p> <p>5. Musikaren funtzio sozialak eta erabilerak eta beste lengoia artistiko, ezagutza-arlo eta hedabideekin dituen erlazioak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperientzietan antzematea, hainbat denbora- eta kultura-inguruetan bete dezaketen eta bete duten rola ulertzeko.</p> <p>6. Hainbat informazio iturri (fonotekak, ikus-entzunezkoak, Internet, testuak, partiturak eta bestelako baliabide grafikoak) modu autonomo eta kritikoan erabiltzea eta kudeatzea, musika ezagutzeko eta horretaz gozatzeko.</p> <p>9. Musikak eta soinuak gure ingurunean nola erabiltzen diren eta zer funtzio duten zentzu kritikoarekin analizatzea, eta giza jarduerak horiek erabilita eragiten dituen aldaketei buruz hausnartzea, baita lortzen diren soinu-paisaiei buruz ere, ingurumenarekiko eta pertsonen bizi-kalitatearekiko ardurazko eta errespetuzko jarrerak garatzeko.</p> <p>10. Euskal Herriko eta beste toki batzuetako ondare kulturalerako manifestazio artistiko eta musikalak ezagutzea eta baloratzeko, adierazteko askotariko moduak kontserbatzen eta berritzen laguntzeko, betiere kultura askotariko pertsonen artean trukeak izatea aberasgarria dela jakinda.</p>	<p>gaitasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna. - Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna. - Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
--	---	--

5. ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

5.1 IRAKASGAIAREN BEREZKO METODOLOGIA

«Esadazu zerbait, eta ahaztu egingo dut; erakutsiezadazu zerbait, eta gogoratuko dut; baina egin nazazu zerbaiten partaide, eta ikasi egingo dut.»

(Esaera zahar txinatarra)

Derrigorrezko irakaskuntzaren curriculumean oinarrizko gaitasunak barne hartzea ikaskuntza-/irakaskuntza-prozesuak modu berri batera ulertzearen aldeko apustua da, eta irakasgai honi buruz hausnartzeko eta kontzepzioa berrorientatzeko beharra planteatzen digu, gaitasun horiek garatzea helburutzat hartuta..

Funtsezko gaitasunak irakasgaietako jarduera didaktikoa orientatzen duten erreferente metodologiko gisa ulertu behar direla kontuan hartuta eta, oro har, gaitasunen inguruko lanak ikaskuntza aktiboa nabarmentzen duela, ikaskuntza hau metodologia bakarra erabiltzera mugatzen ez dela baieztatu dezakegu. Posible da eta komeni da ikasgelan hainbat jarduera-ildo erabiltzea eta garatzea, baina onartu behar da zenbait ekintzak oinarrizko gaitasunak garatzea zailtzen dutela eta beste batzuek, berriz, erraztu. Beraz, metodologia bakar bat baino gehiago, ikaskuntza aktiboko estrategia eta printzipio metodologikoak aipatu beharko genituzke.

Irakasleek ikaskuntza aktiboa errazteko eta oinarrizko gaitasunak gara daitezen sustatzeko kontuan hartu behar dituzten estrategia metodologikoen barruan, honako hauek daude:

1. **Ikaskuntzaren helburua lortzeko motibatzea.** Ikaskuntzaren helburuak ezagutaraztea, ikasleekin negoziatzea, ikasleek beren helburuak markatzea...
2. **Ikaskuntza aktiboa erraztea.** Partaidetza-estrategiak erabiltzea, zalantzak planteatzea, pentsamendu kritikoa garatu dadin sustatzea, helburu zehatza duten ikaskuntza funtzionalak aurkeztea, ikaskuntza berriak ekintza bihurtzea, lan berrietan aplikatuz edo zehaztuz. Horretarako, transmisio-metodoen erabilera mugatu egin behar da, eta ikaskuntza-egoera berriak aurkitu behar dira: proiektuak gauzatu, eguneroko arazoez ebatzi, ikertu... Irakasleen irudia indartu egingo da, prokuradore, gida eta ikaskuntza/irakaskuntzako jardueretako estimulu gisa.
3. **Ikasgelan giro egokia sortzea.** Ikasgelako giro afektiboa zaintzea, ikasleen aukerei buruzko itxaropenak izatea...
4. **Ikaskuntzako autonomiari bide ematea.** Erabakiak hartzeko autonomo izaten, beren ikaskuntzan ardurak hartzen, helburuak markatzen eta lan pertsonala planifikatuz antolatzen ikasi behar dute. Espiritu kritikoa gara dezaten, galderak planteatu dituzten, beren indargune eta ahulguneak ezagutu dituzten, soluzio berriak sormenez bila dituzten, emaitzak ebalua dituzten eta beren ikaskuntza baloratu dezaten sustatu behar da.

5. **IKTen erabilera integratu eta esanguratsua erraztea.** Baliabide didaktikoak erabiltzea, hala nola ikasgelako blogak, wikiak, webquest-ak, eta altxor bilaketak. IKTak programa espezifikoaren bidez musika sortzeko eta interpretatzeko erabiltzea, hala nola partitura-editoreen edo soinua editatzeko eta grabatzeko programen bidez, orobat ikasteko, ikasgelako osagaien arteko komunikaziorako...

6. **Askotariko informazio iturriak erabiltzea sustatzea.** Testu-liburua informazio iturri bakar gisa erabiltzea saihestu, eta material zein baliabide ugari erabili behar dira. Askotariko curriculum-materialak bilatu, aukeratu eta prestatu behar dira. Gainera, informazio-iturrietarako sarbidea gidatu behar da eta informazioa antolatzea, kontrastatzea eta aukeratzea erraztu. Orotariko baliabideak, liburutegiak eta mediatekak (ikasgelakoak, inguruneak, birtualak, eta abar) erabil daitezkeen sustatu behar da.

7. **Ikasitakoa ahoz edo idatziz komunikatzea bultzatzea.** Ikasitakoa komunikatzea eta berdinen arteko elkarrengana bultzatzea, ezagutza eraikitzeko. Ikasleek beren artean eta irakasleekin hitz egiteko, iritzia emateko eta eztabaidatzeko espazioak, uneak, jarduerak... sortzea sustatu behar da. Adibidez, ikasgelako elkarrizketek entzuten, sortzen edo ekoizten den musikaren ezaugarriak aurkeztu, ulertu, analizatu, aipatu eta baloratzea ahalbidetzen dute, eta horrek ezagutza musikala ulertzen eta osatzen laguntzen du.

8. **Prestakuntza-ebaluazioa sustatzea.** Autoerregulazio-egoerak sortzea, ebaluazio-irizpideak ezagutaraztea, autoebaluazioa sustatzea...

9. **Espazioa eta denbora hainbat modutara antolatzea sustatzea.** Ikasgelako espazioaren antolakuntza aldatzea, lan-saioren iraupena malgutzea, ikasleak hainbat modutara taldekatzea, banakako lana talde txiki heterogeneoetako lanarekin konbinatuz, eta ikasgelaren esparruaz haratago doazen taldekatze malguak egitea, batez ere lankidetzaren lana sustatuz.

10. **Ikasitakoa eskola-esparrutik kanpo funtzionala izatea sustatzea.** Helburu eta edukiak ikasleen errealitatearen ingurunera egokitzea, horien beharretara, gustu musikaletara, interesetara eta motibaziora moldatuta. Ezagutza-sareak sor daitezkeen sustatzea, irakasgaien arteko erlazioa eta metodologia globalen erabilera bultzatuz.

Gaitasunen araberako lanaren gakoak, azken finean, metodologian eta ikasgelan proposatutako lanean datza. Ikasgelan metodologia aktiboak erabiliz lan eginez gero, ikasleek erabakiak hartzen dituzte, lanaren banaketa adosten dute, antolatu egiten dira eta ardurak beren gain hartzen dituzte. Halaber, irakasleen rola ikasleak orientatzea eta horiei laguntzea da, eta ikasleek ikaskuntza prozesuaren protagonista izan behar dute.

Hurrengo grafikoan oinarrizko gaitasunak garatzea errazten duten ikasgelako zenbait estrategia metodologiko eta praktikoa ageri dira.



Ondorioz, musikako ikasgelan esperimentaziorako eta praktikarako espazioen errepertorio zabal bat barne hartzen duten estrategia metodologikoak bilatu behar dira, lan kolektiboa, entzute kritikoa eta proiektu artistikoak erregulariki gauzatzea sustatzen dutenak. Irakaskuntza-ikaskuntzako egoera-aniztasun horri esker, ikasleek ingurune musikal ugari aurkituko dituzte eta esperientzia estetikoak zein ezagutza partekatuz egindako kultura bat eraikiko dute.

Illo horretan, eta ingurune musikal horiei koherentzia emate aldera, musikari aurre egiteko modua zehazten duten bi dimentsioak gogoratzea komeni da: dimentsio produktiboa, hots, sortzea, adieraztea eta komunikatzea; eta hausnarketa-dimentsioa edo kritikoa: hau da, kultura musikal bat eraikitzeke hautematea eta ekoiztea, entzutea, interpretatzea, eta sortzea erraztuz, baita lan garrantzitsuak, haien testuinguru eta erreferentziak, teknikak, lengoaiak eta adierazpideak ezagutzea ere.

Musika ezagutzeko, beste ezeren aurretik, entzun eta praktikatu egin behar da. Soinuak eta musika entzunez, erreferente tekniko eta kulturalak garatzen dira, begirada kritikoa izaten laguntzen du, eta praktika musikal kontrolaturako lehen urratsa da, baita interpretazio-jarduerari buruzko ezagutzak eraikitzeke ere.

Proiektu musikalen barruan, banakako nahiz taldekako jarduera musikalak egiteak lorpenen balorazio kritikoa egitea errazten du. Soinu musikalak ekoizteke, uneoro, ekoizpenaren dohainak eta zuzendu beharreko akatsak identifikatu behar dira. Horrela, interpretaziotik hasi eta sorkuntza musikalera, ahotsezkoa bakarrik den lana egitetik musika mistoa sortzera, ikasleek proiektu artistiko bat aukera estetiko, estilistiko eta teknikoetan oinarrituta gauzatzeko behar diren betekizunei erantzuten ikasten dute.

Eta horrela, musikaren bi dimentsioak –hausnarketa eta ekoizpena– etengabe integratzen dira eta elkar indartzen dute.

Musika-jarduerak eta musikarako hurbilketa kulturalak orekatuz, multzo koherente bat eratuko da, ikuspegi artistiko globalizatzaile batekin

5.2. IRAKASLEEN ETA IKASLEEN EGITEKOA

«Argi dago musikako eskolan moldatzeko, irakaskuntzako ohiko esperentziaz gainera, beharrezkoa dela lau aditz hauek elkartzean lortzen den prestakuntza orekatua: ezagutu, zaletasun sendoaren ondorioz; komunikatu, metodologia egokiak ezagutzen badira bakarrik da posible; grinatu, hain zuzen ere grina izatearen bidez; eta ulertu, lengoaia eta osotasunarekiko erlazioak ezagutzen direnean.»

Fernando Palacios, *Las puertas de la música*

Irakasleak funtsezko bitartekariak dira, eta oinarrizko gaitasunak nahiz gaitasun musikal espezifikoak garatzea izango dute helburu, betiere ikasleentzat esanguratsuak eta funtzionalak izango diren ikaskuntza-bideak baliatuta.

Beraz, irakasleek ezin dute mezu-igorle rol tradizionala bakarrik bete; prestakuntzaren ikuspegitik, positiboagoa da ikaskuntza sustatuko duten egoerak sortzea eta bultzatzea. Egoera horien bidez, ikasleek bizi duten errealitatea ulertu ahal izango dute, beren eskema propioak eraikitzen jarraituko dute, eta mundua ikusteko eta modu kritikoan ulertzeko esanahiak bereganatuko dituzte.

Ikasleekin modu horretan lan egiteko, irakasleak bitartekari lana egin behar du; hau da, edukien aukeraketa antolatu, haien esanahiak orientatu, lan-metodoak ikertu edota jarduerak diseinatu. Hori guztia, musika-hezkuntza orokorrerako, unibertsalerako, sarbidea emateko, ikasleak aurretiaz aukeratu gabe.

Horrela, irakaslea ikasleek jardueretan parte har dezaten ingurune eta baliabideak antolatzen dituen laguntzailea da. Dena den, musika-hezkuntza garatzen den ingurunea kudeatzea ez da erraza, ez zaila delako zer irakatsi eta nola irakatsi jakitea, baizik eta taldekako ikaskuntza-dinamikek irakaste eta ikaste prozesua gauzatzeko ezinbestekoak diren estrategiak erabiltzea eskatzen dutelako. Hori dela eta, irakaslea ez da aditua ezagutza duelako, estrategia metodologikoak ezagutzen dituelako baizik.

Halaber, irakasle eta ikasleen artean eta taldean sortzen diren afektibitateak, lotura afektiboek, komunikazioak eta tratuak balio erantsia dute; hau da, ikuspegi didaktikotik produktiboak izatea. Horren mende dago ikasleak modu sortzaile, ludiko eta praktikokoan hurbiltzea musikara. Hori dela eta, irakasleek ikasleen artean integrazio eta elkarrekintza handia bermatu behar dituzte, partaidetza, iritziak trukatzeko eta erantzunak adierazteko sustatuz.

De la misma manera, es fundamental un clima de respeto mutuo, en el que el profesorado buscará proponer, abrir caminos, facilitar el descubrimiento de alternativas y permitir a los alumnos y alumnas barajar posibilidades y soluciones diversas. Por parte del alumnado, deberá existir también una actitud de respeto hacia sus profesoras

y profesores y hacia el resto del grupo, y una disposición abierta ante nuevas experiencias de aprendizaje. Por lo tanto, la actitud del profesorado y el clima afectivo creado en el aula condicionarán la eficacia de los procesos de enseñanza aprendizaje.

5.3 IKASGELAREN KUDEAKETA

Jarduera-planteamendua

Gai honen diseinuak ikuspegi nagusiki praktikoa du, eta, horren arabera, musika musikaren bidez ikastea bilatzen da. Horrek jardueren diseinuari buruzko erabakiak baldintzatzen ditu. Orokorrean, eta metodologiari buruzko atalean adierazitakoaren harira, proposatutako irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak honako hauetara orientatuta egon behar dute:

- Errealitatearen hainbat ingurunetan eta ikaskuntzako egoera errealekin erlazioa daitezkeen lanak egitea.
- Multimedia-baliabideak eta IKTak eguneroko bizitzako hainbat jardueratan integratzea.
- Uneoro ikasleen autonomia sustatzea, hau da, lan bat al bait laguntza gutxienarekin independenteki gauzatzeko gaitasuna garatzea.

Gainera, jarduerak musikara planteamendu global batetik hurbiltzea ahalbidetu behar dute, nahiz eta batzuetan guztizkotik elementuak bakantzea komeni den, eraginkortasunez lan egiteko. Planteamendu global horren barruan, modu orekatuan landu behar dira pertsonok musikari eta musika-kulturari aurre egiteko ditugun bi moduak: dimentsio produktiboa (soinuen bidez adieraztea, sortzea, komunikatzea, eta abar) eta gogoetazkoa edo dimentsio kritikoa (produktu musikalak ezagutzea, entzutea, analizatzea, interpretatzea, eta abar).

Halaber, jardueren diseinuari eta motari dagokienez, ikasleen gertuko ingurune musikalarekin eta haien interesekin zerikusia dutenak kontuan hartuko dira, ikasleengan musika egiteko beste modu batzuekiko jakingura pizteko eta, horrela, ekintza musikalera ikuspegi zabalagotik hurbiltzeko. Proposamen horiek inplizitu dauden hausnarketa-prozesuak jasotzera eta garatzera zuzendutako planteamenduetatik egin behar dira, hala nola:

- Ikasleei ideiak formulatzeko, orotariko gaitasunak erabiltzeko eta egoera berrietan lortutako ezagutzak transferitzeko aukera emango dieten **proiektuak planteatzea**. Proiektuak eguneroko bizitzako gaietatik, planteamendu artistiko zehatzetatik edo beste arlo batzuetako edukiei loturiko gaietatik sor daitezke. Horrek diziplina arteko proposamenak egiteko aukera irekitzen du.

- Musika-lanen, pieza instrumentalen eta edukiei loturiko abestien, orobat dokumentuen eta hausnarketa eta eztabaidari bide ematen dieten bestelako baliabideen **errepertorio zabal eta aberatsa erabiltzea**. Eztabaida eta hausnarketarako espazio horiei esker, ikasleak elkarrekintzan aritzen dira, eta, hala, ezagutza partekatua eraikitzen dute, orotariko begiradetan eta irizpide desberdinetan oinarrituta..

Garrantzitsua da ikasleentzat interesgarriak diren eta, aldi berean, musikaren munduko beste arlo batzuk ezagutzeko jakin-mina pizten duten askotariko jarduerak planteatzea.

Gainera, jardueren garapenean ez ditugu beste jarduera-esparru batzuk ahaztu behar. Ikasleek egindako musika eskain diezaiekegu, bokala, instrumentala, mistoa edo koreografiaduna izan, diziplina arteko proiektu baten zati gisa, bai ikastetxeko ikasleei, bai familiei edo hainbat instituziori, eta esperientzia-trukeak, ikastetxe arteko topaketak eta abar planifika daitezke. Halaber, zuzeneko kontzertu edo musika-emanaldietara joatea erraztu behar da, horrek guztiak ikasleen bizitzako kultura musikaleko zenbait alderdirekin erlazio zuzena ahalbidetzen duelako.

Elkarreragina ikasgelan

Lankidetzaz errazten duten jarduerak oso betekizun garrantzitsua dute musika irakasgaiari. Jarduera bat taldean egiteak ikasleei arazoei heltzeko beste modu batzuk ezagutzeko eta haiek positiboki baloratzeko aukera ematen die. Gainera, emaitzak konparatzea eta truke sortzaileak gauzatzea ahalbidetzen du. Jarduera horiek honako ezaugarriak izan behar dituzte:

- Taldean lan koordinatua egitea eta plangintza bateratzea, denborak eta materialak banatzea eta antolatzea, eta beste hainbat gauza eskatzen duten fasez osatutako lan proiektu bat eratzea.
- Talde baten aurrean aurkezpenak egin daitezkeen eskatzea eta, horrela, iritziak trukatzeko eta uste desberdinak eztabaidatzea erraztea.

Taldeak

Lan-metodoek ikasgelako giroarekin eta pertsonen arteko erlazio motarekin erlazio estua dute. Hori dela eta, ikasleen partaidetza erregulatu egin behar da, denbora aprobetxatzeko eta konfiantza nahiz lankidetzaz sortzeko. Hori dela eta, taldeek beharrezko elementu batzuk izan beharko dituzte: aniztasuna, pertsonen egokিতuta egotea eta lan pertsonalaren eta taldeko lanaren arteko oreka.

Oro har, talde heterogeneoa da ikasleen arteko elkarrekintza eta integrazioa errazteko egokiena, taldearen aniztasunari arreta eskaintzea ahalbidetzen baitu. Dena den, aldi baterako talde homogeneoek ere curriculumeko zenbait alderdi lantzen laguntzen dute, batez ere irakasleen partaidetza zuzenagoa eskatzen duten alderdiak.

Planteatzen diren edukien eta jardueren arabera, hainbat ikasle-talderekin lan egin beharko da:

:

- **Banakako lana**, planteamenduak pertsona bakoitzaren erritmora, ikasteko estilora eta ezaugarrietara egokitzea eskatzen duenean. Adibidez, musikako zenbait kontzepturen analisia eta hausnarketa egiteko, interpretazio musikaleko zailtasun teknikoak ebazteko, zenbait proposamen artistiko taxutzeko...
- **Talde txikietan lan egitea** egokia da, adibidez, proiektu artistiko askok dituzten arazo teknikoak konpontzeko, edo proiektu kolektiboak garatzeko, hala nola ekoizpen musikalak taxutzeko, multimedia proiekturen bat egiteko...
- **Talde handitan lan egitea** egokia da gaiak aurkezteko, eztabaidak antolatzeke, aurretiazko ezagutzak hautemateko, lanak aurkezteko, entzuketak antolatzeke, musika emanaldiak antolatzeke...

5.4 TOKIA ETA DENBORA

Baliabide eta lan-baldintza egokiak izateak irakasgaia behar bezala garatzea errazten eta baldintzatzen du. Hori dela eta, ikasgela espezifikoa, handia eta kanpoko zaratatik isolatua edukitzea oso beharrezkoa da.

Ikasgelaren banaketak, gainera, banakako eta taldeko lana, esperientziak trukitzea eta zenbait musika talderen interpretazio-jarduerak egitea erraztu behar ditu. Espazioa gauza askotarako erabiliko denez, altzariak mugitu eta beste toki batean jarri ahal izatea komeni da, espazio zabal handi bat sortu ahal izateko. Aldi berean, espazio horrek argi egokia izan behar du, bai naturala, bai artifiziala, eta erraz iluntzeko modua eduki behar da, behar artistikoen arabera edo ikus-entzunezko materiala proiektatu ahal izateko.

Musikako ikasgelaren kokapena eta baldintza akustikoak egokiak izatea ere oso faktore garrantzitsuak dira. Gainerako ikasgeletatik isolatuta egotea komeni da, batetik, kanpoko zaratak saihesteko eta, bestetik, zenbait jarduera artistiko programatzeak gainerako ikasgeletako lanean eragin ez dezan.

Halaber, fonoteka eta musika liburutegi on bat eduki behar ditu, ikasleentzat eskuragarri, baita interpretazio eta sorkuntza artistikorako beharrezkoak diren tresna musikalak ere. Gainera, gaur egun teknologia berriak ezagutzak eraikitzeke oinarritzko tresnak direnez, ikasgelak beharrezkoak diren IKT baliabideak eduki behar ditu, informazioa bilatzeko, komunikatzeko, adierazpenerako, musika ekoizteke eta hedatzeko.

Irakasle eta ikasleek jarduten duten inguruneke arkitektura-konfigurazioak, banaketa espazialak eta ekipamendu materialek eragin nabarmena dute jarduera, esperientzia eta ikaskuntzetan eta, ondorioz, hezkuntza-eredu inplizitu bat islatzen dute.

Bestalde, ez da ahaztu behar ikaskuntza-irakaskuntzaren tokia ez duela ikasgelak edo ikastetxeak berak soilik osatzen; alegia, komunitateko bizitza artistiko eta musikalarekiko erlazioa ere biziki aberasgarria eta hezitzailea da. Horren harira, eta adibide gisa, ikaskuntzarako agertoki-aldaketa posibleen artean hauek nabarmen daitezke: herriko musika eskolarekin erlazioak ezartzea, esperientziak trukatzeko, entzunaldiak antolatuzeko; erakunde publiko nahiz pribatuek antolatutako kontzertu didaktikoetara joatea; eta, musikaren hainbat arlori loturiko antzokiak, auditorioak, museoak edo erakusketak bisitatzeko. Jarduera horiek guztiak oso garrantzitsuak dira irakasgaiko helburuak lortzeko.

Denbora-antolakuntzari dagokionez, besteak beste, ikasleentzako autonomia-eremu zabala bilatu behar dugu, eta, era berean, irakasleek aniztasuna aintzat hartzen dutela ziurtatu.

Denbora eraginkortasunez kudeatu behar da, zenbait aldagai kontuan hartuta:

- talde zehatza
- ikasleen ikaskuntza-erritmoak
- edukiak eta haien antolamendua
- proposaturiko lanaren planteamendua

Planifikazio horretan, halaber, ikasleek lan-denbora antolatuzeko autonomia izatea sustatu behar da, proiektu, tailer eta abarren arabera lan-saioak antolatzea aurreikusi behar du, proiektuaren eta proposamen didaktikoen garapenean zehar malgua izan behar du, banako eta taldeko arretarako denborak gorde behar ditu, eta irakasgaiaren dedikazio-ordutegi eksklusiboa zabaldu behar da (kontzertuetan parte hartu, antzokiak, erakusketak edo museoak bisitatu, ingurura ibilaldiak egin, eta abar).

5.5 BALIABIDEAK ETA MATERIALAK

Musikako ikasgelako lanerako, material eta baliabide ugari izatea komeni da, ikerketarako eta aberaste espresibo eta sortzailerako tresna gisa erabiltzeko. Horiek nola erabili ikaskuntza prozesuko une bakoitzean esleitzen zaien funtzioak eta planteatu diren helburuek baldintzatuko dute.

Ikasgelako berezko baliabideak

Ikasgelako berezko baliabideei dagokienez, altzarien kasuan, erraz garraiatu eta mugitu ahal izatea garrantzitsua da. Hala, idazteko, notak hartzeko, irakurtzeko zein entzuketak egiteko idazbesaulkiak erabiltzea komeni da.

Halaber, bi arbel izatea komeni da, bata musikaren idazketa tradizionala irudikatuzeko prestatua, eta bestea, markarik gabea, grafiko, eskema eta musikako zenbait ezohiko grafia adierazi ahal izateko.

Tamaina egokiko armairuak izatea ere beharrezkoa da, ikasgelako jardueretan erabili ohi diren tresnak arretaz gorde ahal izateko.

Dokumentazioa eta baliabide inprimatuak

Musika irakasgaia behar bezala lantzeko, baliabide eta material inprimatuen errepertorio zabal eta aberatsa erabili behar da sistematikoki, hala nola musika-liburuak, entziklopediak, musika-aldizkariak, musika-kritikak, kontzertuen programak, aldizkari edo prentsako artikulak, eta abar, horien bidez kontsulta, hausnarketa eta eztabaida ahalbidetzeko.

Musika-tresnak

Jarduera artistikoetan, tresna eta soinu-objektu ugari izatea komeni da. Teklatu edo gitarra bat izatea interesgarria da, entzunaldietan edo interpretazio bokal edo instrumentaleko jardueretan akonpainamendua egiteko. Gainera, ikasgela perkusio-tresnen bilduma zabal batez hornitu behar da, instrumentazioak egiteko, abestien, beste tresna batzuek interpretatutako melodien eta entzunaldien akonpainamenduak egiteko edo sorkuntza musikaletan haiek bakarrik erabiltzeko. Tresnen artean, hauek nabarmen daitezke:

- Mintz-tresnak: danborrak, panderoak, tinbalak, bongoak...
- Perkusio-tresna txikiak: klabeak, kutxa txinatarrak, krotaloak, triangeluak, marakak...
- Lamina-tresnak: karriloak, xilofonoak eta hainbat altueratako metalofonoak.

Además de estos instrumentos se contará con otros objetos sonoros, instrumentos de fabricación casera y objetos de diversa índole con los que se pueden enriquecer las posibilidades creativas y expresivas de las actividades musicales

Baliabide teknologikoak

Kalitatezko musika-ekipo bat erabiltzea berebizikoa da ikaskuntza-irakaskuntza jarduerak garatzeko, zehaztasunez hautemateko eta, horrela, proposatutako entzunaldien alderdi, ñabardura eta erregistroak ulertzeko.

Bestalde, baliabide tradizionalak gainera (musika-ekipoa, argazki- edo bideo-kamera, soinu-grabagailuak edo diapositiba-proiektorea), musikako ikasgelan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatzea gero eta ohikoagoa da. Gaur egun, ordenagailuak musikako irakasleek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan erabiltzeko tresna garrantzitsu bihurtu dira. Ildo horretan, oso interesgarria da ikasgelan ordenagailuak izatea, horiei esker egoera interaktibo eta sortzaile ugari planteatu baitaitezke musikaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan.

5.6 JARDUERAK ANTOLATZEA

Jarduerak metodologia aktiboaren bidez diseinatzeko eta antolatzeko, **sekuentzia didaktikotan** antolatuta egon behar dute, hau da, helburu bat lortzera zuzenduta eta batasuna ematen duen ardatz baten inguruan antolatuta egon behar dute.

Hartara, sekuentzia didaktikoa bizitza errealarekin loturiko egoerak planteatzen dituen eta ikasleen bizitzako askotariko testuinguruak islatzen dituen lan-unitate gisa eratzen eta identifikatzen da. Hori guztia ebaluazioa prozesuaren berebiziko zati gisa barne hartzen duen eta ikasitakoa egoera berrietan erabiltzea errazten duen ikaskuntza helburu argiarekin.

Jarduera didaktikoa planteatzeko modu horretan, ikaskuntza-edukiak modu koherentean antolatuta integratzeari garrantzia ematen zaio, ikaskuntza global eta aktiboa lortzeko asmoarekin, material askok agertzen duten zatikatzeaz haratago, eginez egiten ikastea sustatuz, eduki horiei zentzua eta funtzionaltasuna emanda.



Beraz, irakasgai honetan proposatutako jarduerak musikara planteamendu global batetik hurbiltzea ahalbidetu behar dute, eta dimentsio produktiboari (adieraztea, sortzea eta komunikatzea) nahiz hausnarketazkoari edo dimentsio kritikoki erantzun behar diete. Halaber, musikak sortutakoa ekoizpenaren inguruneen arabera ezagutarazten lagundu behar dute jarduera horiek.

Hausnarketa-dimentsioa: musika entzutea

«Entzunaldiak aktiboagoa izan behar du. Dela Mozart dela Duke Ellington entzun, musika sakontasun handiagoz ulertuko dugu entzule kontziente eta jakitunak bagara; ez zerbait entzutera mugatzen den norbait, baizik eta zerbait entzuten duen norbait.»

Aarón Copland

Soinu-hautematea garatzen duten jarduerak ikasleak soinu-jazoerak behatzeko eta bereizteko gaitzera, musikarekiko gustua sustatzera eta errealitatea kritikoki analizatzen bideratuta egon behar dute. Hautemate-jarduerak antolatzeari dagokionez, zenbait gai orokor kontuan hartu behar dira.

Gogoeta eginez entzutea sustatzea ez da ikasgelan musika jartzea; horren ordez, arazoak deskubritzeko eta ebazteko estrategia gisa planifikatzen da entzunaldia. Entzunaldia bi faktoreren mende dago, funtsean: entzumen-memoria musikalaren eta aurretiazko esperientzia musikalen mende. Entzunaldiak planteatzen direnean, kontuan hartu behar da ohituta ez dauden entzuleek lehendabizi melodia hautematen dutela, gero erritmoa, gero tinbrea eta harmonia eta, azkenik, forma. Hori dela eta, entzungo dugun lana zatika nola desintegratuko den eta osotasunean nola berrintegratuko den aurreikusi behar da.

Gainera, entzundakoa ahoz nahiz idatziz deskribatzean, gure memoriatik soinu-datuak berreskuratzen dira, eta, hori dela eta, aurretiazko esperientzietan oinarritzen den informazio akustikoa prozesatzeko modu bat da.

Entzuketa-jarduerak planifikatzerakoan, epe laburreko eta epe motzeko helburuak ere barne hartu behar dira. Epe laburrekoak lan bakoitzerako jarraituko diren urratsei lotuta daude, eta diskurtso musikolari buruzko sorkuntza eta didaktika-trebeziak barne hartzen dituzte; epe luzekoak, berriz, aukeratutako lanak prototipo estilistiko gisa hartzeari dagozkio.

Entzuketa-esperientziek horrela diseinatuta egon behar dute, buruan pixkanaka eratzen den eraikuntza gisa. Luzera laburreko zatiak aukeratuko dira, eta luzera pixkanaka handituko da. Kontuan hartu behar da denbora errealeko musika-analisia entzuten goazen heinean eteten den informazio akustikoaren gainean egiten dela beti, eta, hori dela eta, memoriaren mendekoa dela. Memoria hori oso ahula da eta aurretiazko esperientzietan oinarritzen da. Hori dela eta, entzuten diren zatien luzera egokitu egin behar da, eta hautemandakoa asimilatzea ahalbidetzen duten ekintza zehatzak proposatu behar dira.

Entzunaldiak asimilatzea errazten duten jardueren artean, ondokoak esperientzia aktibo gisa nabarmen daitezke: ikasleei hautemandakoa eta ulertutakoa eskuzko keinuen, idazkien edo grafikoen, gorputz-jarreraren, erritmo-zatien edo ataletatik ateratako melodien, entzundakoari buruzko ahozko adierazpenen eta abarren bidez adieraztea eskatzen dietenak.

Honako hauetan oinarritutako planifikazio-jarduerak:

- Entzungo denarekiko motibazioa lortzea. Ezagunak direlako, gaiak errepikatzen direlako, eta abar memorian gordetzea errazten duten entzuketak aukeratzea, jakin-mina sustatzea, ezagutzen ez den musika aldeztetik baztertzea saihestea.
- Entzutekoa den lana zatitzea, atalak unitate formalen arabera banatuta.
- Entzundako lana, egilea, notazioa, eta abar testuinguruan kokatzea erraztea, arrazonomendu deduktiboan eta beste jazoera garrantzitsu batzuekiko erlazioan oinarrituta informazioa modu esanguratsu, labur eta erakargarrian nola eman planifikatuta.
- Idazketa tradizionala edo ez-tradizionala erabiltzea, entzundakoa gogoratzeko modu gisa.
- Hainbat estilotako eta tinbre-taldekatetako musika zuzenean entzutea sustatzea.

Entzunaldia gertatzen den bitartean, entzuleen arreta aurkezten diren soinuak hautematean jarrita dago, eta lehendik entzundakoekin konparatzen ditu, konbinazioen esanahia bilatu nahian eta etorkizuna, hots, entzuten ari garenaren jarraipen posible bat, aurreikusi nahian.

Entzunaldiko jardueren oinarria:

- Arretaz entzuten laguntzea, isiltasunean, entzunaldiaren gaineko arretari eusteko trebatuz, arreta-maila ez jaisteko euskarriak emanez, adibidez, iraupen laburreko zatiekin hasita, ikus-entzunezko euskarriekin, aurretiazko aurkezpen erakargarria eginda.
- Lanaren egiturari jarraituz, mugimendu-dinamikak planteatzea: gorputz-perkusioa, koreografiadun mugimendua, inprobisazioak...
- Musika hobeto ulertzeko, entzutea eta jotzea, ahapetik kantatzea, abestea, inprobisatzea, konpontzea, marraztea, memorizatzea, aurreikustea
- Analisi musikala banaka gauzatzea, euskarri grafikoen laguntzarekin, entzundako musikari buruz hausnartzeko bide gisa eta diskurtsoa antolatzeako printzipioak ezagutzeko.
- Musika-notazio tradizionala edo ez-tradizionala erabiltzea entzundakoa gogoratzeko eta kode erritmikoak, egiturak, tonu- eta modu-kodeak eta bestelako elementu dinamiko eta tinbrikoak deskodetzeko baliabide gisa, baita estilo musikalak eta horien ezaugarriak irizpide jakin batzuetan oinarrituz hitzez adierazteko ere.
- Pasarteak behar adina aldiz entzutea, ikasleek beren pertzepzioak azaldu edo deskribatu ahal izan ditzaten.
- Zenbait lanen bertsio desberdinak entzutea, eta xehetasunak eta diferentziak bereiztea.

Entzunaldia amaitutakoan, entzundakoari eta analizatutakoari buruzko ideiak, sentrazioak eta balorazioak komunika ditzaten erraztu behar da, ikasleen arteko elkarrekintza bultzatuz, musikari buruzko ezagutza partekatua eraikitzeko.

Entzunaldiaren ondorengo jardueren oinarriak:

- Ikasleek pertzepzioak beren hitzetan azaldu edo deskribatu ditzaten erraztea.
- Ikasgelan entzunaldian zehar gertatutakoa kritikoki analizatzea, disfuntziorik badago zuzentzeko.
- Hurrengo saiorako entzunaldi egokienak zein izango diren aurreikustea.
- Ikasleek egindako deskribapenak, oharra, grafikoak eta taulak analizatzea, zailtasun orokorrak, gai interesgarriak, aipamen originalak eta abar deskubritzeko.
- Musikako hurrengo saioetan jorratuko diren galderak eta gai interesgarriak aurreikustea.

Dimentsio produktiboa: adieraztea, sortzea eta komunikatzea

Musikaren bidez adieraztea, sortzea eta komunikatzea oso jarduera atseginak dira, baita orotariko trebezia, jarrera eta gaitasunak garatzeko modua ere.

Horrela, praktika musikari buruzko jarduerak trebezia motorrak garatzen laguntzen dute, entzumen-memoria eta kontzentrazioa estimulatzeko, eta pertzepzio- eta adierazpen-gaitasunak garatzea sustatzen dute. Musika-interpretazioak pentsamendu-formak eta ez-hitzezko lengoia erabiltzea errazten du, interpretazio-lanaren berehalako sarien ondorioz autoestimua sustatzen du, eta afinazioari, egitura erritmikoei, melodikoei, harmonikoei eta formalei, soinu-planoei, izaeraren eta tinbrearen arteko erlazioei eta abarri buruzko ezagutzak lortzen dira.

Gainera, musika-jarduera norberaren ezagutza eta taldera moldatzeko gaitasuna estimulatzeko ezinbesteko baliabidea da. Taldean musika egiteko, ikasle guztien partaidetza izateko eta haiei beren gaitasunen arabera zereginak esleitzeko, taldeko dinamika kudeatzeko, partaidetza sustatzeko eta abarrerako, lanak eta rolak banatzerakoan eta taldeak eratzerakoan malgutasun handia behar da; halaber, sentikortasuna eta behatzeko gaitasuna garatu behar dira, kide bakoitzaren eta, oro har, taldearen interes eta gaitasun pertsonalak kontuan hartzeko.

Sorkuntzari eta interpretazioari loturiko jarduerak antolatzerakoan, honako estrategia metodologiko hauek izan behar dira kontuan:

- Ikasleak berdinen arteko tutoretza-taldetan antola daitezten sustatzea, horietan ikasle onenek besteei lagunduko baitiete teknika instrumentalean edo interpretazioaren beste alderdi batzuetan.
- Estilo askotariko lanak aukeratzea, batez ere ikasleen interesetatik hurbil dagoen musika.
- Erabili beharreko laguntza grafikoak, notazio-motak, atalen erregistroa, interprete bakoitzaren jarduera bizkor erregistratzeko moduak eta abar aurreikustea.
- Exekuzioa errazten duten atal musikalak doitzea..
- Taldearen barruan bakarlari gisa aritzea sustatzea, ikasle bakoitzaren potentzialtasun eta berezitasunak jokoan jartzea, haien joerak, lehenespenak eta banako gaitasun edo zailtasunak kontuan hartuta.
- Ikasleen interpretazioa behatzea, eta emanaldi eta ekimen positiboak sustatzea, akatsak zuzentzea, rol-aldaketak egitea, soinu-planoak doitzea...
- Emanaldiak grabatzea, esperientzia analizatzeko, emanaldi berriak diseinatzeko, interpretazioan egindako aurrerapenak hautemateko...
- Taldearen autoebaluazioa sustatzea, emanaldiaren balorazio objektibo bat egiten lagunduta.

Halaber, nabarmentzekoa da, teknologia berriekin, egungo musika interpretazio instrumental eta bokalerako oinarri gisa ere erabil daitekeela. Partitura- eta soinu-editoreei, sekuentziadoreei, akonpainamendu automatikoen sorgailuei eta abarri esker, ikasleek egindako konposizioak sortu eta entzun daitezke. Tresna horiek ezinbestekoak dira ikasleek bai banakako, bai taldeko sorkuntza eta interpretazio musikalerako gaitasun eta tekniketari garapena lortzeko eta gaitu daitezen, orobat musikaren ekoizpen eta ikaskuntza autonomoa errazteko.

Azken finean, musikaren bidezko adierazpen-, sorkuntza- eta komunikazio-jarduerak arrunki gauzatu gero, bizipen sentsorial, psikologiko eta sozialen sare konplexu bat garatzen da, eta horrek esperientzia musikaltzat jo daitekeena osatzen du.

5.7 EDUKIAK LEHENESTEKO IRIZPIDEAK

Oinarrizko gaitasunen garapena ez dago, lehen adierazi dugun bezala, irakasgai zehatz bati lotuta. Baina oinarrizko gaitasun horiek ezinbesteko erreferentzia dira edukiak hautatzeko eta antolatzeke orduan, gaitasun horiek garatzea errazten duten edukiak lehenetsi behar baitira.

Edukiek irakatsi nahi dena adierazten dute, eta, hortaz, ikasleak ikasi beharko lukeena. Helburu orokorrekin erlazionatzen dira eta horiek lortzeko asmoaren zerbitzura daude. Beraz, ikaskuntzaren edukiak helburu jakin batzuetarantz aurrera egiteko zehaztapenak dira.

Ikaskuntza-edukiak lehenesteko, modu koherente eta sekuentziatuan integratu eta antolatu behar dira, ikaskuntza globala eta aktiboa izango bada, gehiegi zatikatu gabe; hau da, eduki horiei zentzua eta funtzionaltasuna eman behar zaie, eta eginez egiten ikastea sustatu.

Irakasgai honetako eduki-sekuentziaren antolamenduaren ezaugarri nagusia, hain zuzen ere, egituraketa itxirik ez izatea da, ideien eta edukien sare zabal gisa ulertzea. Hori abiapuntu ugariatik jorra daiteke eta irakasgaiaren curriculumaren barruan proposatzen diren hiru eduki-bloketan zehar agertuko dira.

Bloke horiek dimentsio produktibotik (adieraztea, sortzea, komunikatzea) eta hausnarketazkotik edo dimentsio kritikotik egituratuta daude, eta musikaren erabilera espresibo, komunikatibo eta narratiboei erantzuteko diseinatuta. Halaber, lengoia musikalaren baliabide eta tradizioei eta sorkuntzako prozedura eta teknikei erantzuteko diseinatuta daude, eta musikaren eta sorkuntza musikalen ekoizpen-inguruneekiko funtzioei buruz hausnartzera bultzatzen dute.

Baina nabarmentzekoa da, bloketan sailkatuta egin arren, eduki horiek ez dutela gaitasun bat osatzen. Ez dira berez zentzua daukaten unitate zatituak. Irakasleek erabaki behar dute nola banatu, sekuentziak, eta programazioa garatzeko dagokion hautaketa egingo dute. Azkenik, nabarmentzekoa da edukien aurkezpen-ordenak ez duela inolako lehentasunik adierazten.

Hori dela eta, sekuentzia didaktikoak antolatzeko orduan, kontuan hartu behar da curriculumeko zer eduki den garrantzitsuagoa irakasle bakoitzarentzat, eta ez da irakasgaiaren aztergaia bera ahaztu behar.

5.8 EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

La evaluación debe ser el motor del aprendizaje y es inseparable de los procesos de enseñanza y aprendizaje ya que aprender conlleva detectar problemas, superar obstáculos, reconocer errores y rectificarlos. Al reflexionar sobre la evaluación hay unos interrogantes básicos a los que se debe dar respuesta.

- ¿Para qué evaluar?
- ¿Cuándo evaluar?
- ¿Quién evalúa?
- ¿Qué evaluar?
- ¿Cómo evaluar?

Halaber, ebaluazioa, hezkuntza-prozesuko zati den heinean, irakasleek eta ikasleek partekatzen duten jardueratzat jotzen da, eta gaitasunak barneratu diren jakiteko balio du. Horretarako, curriculumean proposatzen diren ondoko gaietan oinarritzen da: zer, nola, noiz eta zertarako garatzen diren gaitasun horiek.

Oro har, ebaluazioari buruzko bi ideia desberdin daude:

- Ezagutza jakin batzuk ikasi direla ziurtatzeko ebaluatzea; hau da, *ebaluazio batutzailea*.
- Ikasleen ikasketa-zailtasunak eta aurrerabideak ezagutzeko eta prozesua egiazko premietara egokitzeko ebaluatzea; hots, *prestakuntza-ebaluazioa*.

Zertarako ebaluatu behar da?

Musika-hezkuntzan, ebaluazio-prozesuak emaitzei buruzko informazioa eman behar du datu gisa, baina ez hori bakarrik. Alegia, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuari buruzko hausnarketa bat egiten lagundu behar du, ikasleen aurrerapenean, musikarekiko interesean, irakasle/ikasle elkarrekintzan, dibertsitatearekiko arretan, proposamen metodologikoetan eta abarretan oinarrituta. Azken batean, ebaluazioak hezkuntza prozesu osoa estimulatu eta bateratzeko balio behar du.

Ebaluazioa hezkuntza-prozesuaren barruko fase bat da. Ebaluazio-prozesua, musika irakasgaietan ulertzen den moduan, prestakuntzako ebaluazio eredu bat da, eta motibazioa, nor bere burua gainditzea eta hezkuntza-ekintza etengabe hobetzea ahalbidetzen ditu. Halaber, hezkuntza-prozesua argitzen laguntzen du eta baliabide didaktikoa da, ez ikaskuntzak neurtzeko soilik, baita hezkuntza-jarduera birbideratzeko ere.

Musikako ebaluazioak irakasgaiaren ikusmoldearekin bat etorri behar du, eta, lehen azaldu dugun bezala, ikusmolde horrek pertsonak musikari eta soinu-ekoizpenei aurre egiteko dituzten bi moduak barne hartzen ditu: batetik, ikasleak produktu artistikoen eta soinu-zkoen hartzaile, kontsumitzaile, eta abar diren aldetik; eta, bestetik, horien ekoizle diren aldetik. Hau da, adierazpenari, sorkuntzari, komunikazioari, erabilerari, eta abarri loturiko alderdiak barne hartu behar ditu, baita beste zenbait alderdi ere, hala nola ezagutza, behaketa, analisia, komentarioa, interpretazioa...

Zer ebaluatu behar da?

Puntu honetara iritsitakoan, interesgarria izan daiteke musikan ebalua daitezkeen alderdiak laburbiltzea:

- Ekoizpen musikalen eta lan artistiko-musikalen interpretazio kritikoa egitea, ekoizle diren testuinguruen barruan.
- Askotariko kulturen adierazpen artistiko eta musikal moten ezaugarriak kontuan hartzea.
- Ekoizpen artistiko eta musikalak taxutzea, baliabide espresibo sorta zabal bat arazoiz erabiliz.
- Ideiei, sentimenduei, emozioei eta abarri erantzuten dieten proiektu artistikoen bidez soluzioak eta estrategiak bilatzea.
- Musikaren lan- eta aplikazio-esparruen dibertsitatea ezagutzea eta baloratzea.
- Espresio eta adierazpen musikalen aldaerak ezagutzea eta baloratzea.

Noiz ebaluatu behar da?

Ebaluazioa **ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan integratu** behar da, eta beraz, ez du azken emaitzetan soilik oinarritu behar. Irakasleei zein ikasleei aurkitzen dituzten zailtasunei eta beren lana aldatzeko eta hobetzeko hartu behar dituzten neurriak buruzko informazioa eman behar die.

Ikaskuntzan modu eraginkorrean eragingo badu, ebaluazioak irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoan egon behar du presente. Prozesu honen hasieran, ikasleek proiektu artistikoan edo sekuentzia didaktikoan zehar landuko duten arlo artistiko-musikalaren gainean duten kontrol-maila zehazten lagunduko diguten **hasierako ebaluazio-jarduerak** egingo ditugu.

Hainbat modu daude horretarako, hala nola idatzizko probak, ahozko elkarrizketak, behatze-jarraibideak, galdetegiak, galderak... Hasierako ebaluazioa lan-plana doitzeko baliagarria izango da, halakorik egitea beharrezkoa bada.

Ikaskuntzarako ebaluaziorik garrantzitsuena **prozesua bera ebaluatzea** da, sortzen diren zailtasunetan eragiten duelako eta konpontzen laguntzen duelako. Hau da, lanean ari garen heinean, erabakietan alaketak egiteko aukera ematen du, eta beharrezkoa izanez gero, zuzenketak egiteko aukera, ikasleek prozesuan arrakasta izatea errazteko.

Prestakuntzaren edo prozesuen ebaluazio horrek jardueraren behaketa eta eguneroko egitekoen azterketa bildu behar ditu. Alegia, ebaluazio-prozesua ez da jarduera espezifikoetan zentratuko, baizik eta, hein handi batean, gelako ohiko jardueran, esaterako: esperimazioetan, konponbideak probatzean, musika interpretazio eta sorkuntzetan, musika-komentarioetan, irakurketetan, eskemetan... Horrekin guztiarekin, emaitzaren eta prozesuaren inguruko informazioa bilduko dugu, eta, ondorioz, ikasle bakoitzaren egoera hobeto ezagutuko dugu eta lana kasuaren arabera egokitu ahal izango dugu.

Ebaluazio batutzailea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko etapa bat bukatzean egiten da, emaitzak egiaztatzeko. Hainbat motatakoak daude: entzunaldiak komentatzea, ekoizpen artistiko-musikala, mapa kontzeptuala, banakako lana, galdetegiak, eta abar, baina beti prozesuan zehar jasotako datu eta behaketak osatzeko erabiliko da.

Nola ebaluatu behar da?

Ebaluazio-prozesuak, arestian adierazi dugun bezala, oso konplexuak dira. Hori dela eta, **ebaluazioa egiteko tresnek ugariak eta askotarikoak izan behar dute.**

Ebaluazio-tresnak irakasleek eta ikasleek ikaskuntza-prozesuaren garapenari buruzko datuak lortzeko erabiltzen dituzten baliabideak dira. Lortu nahi ditugun helburuen arabera, tresna jakin bat aukeratu eta erabiliko dugu.

Hala eta guztiz ere, tresna bera hainbat helbururekin erabil daiteke, eta ebaluatzaile batek baino gehiagok erabil dezakete.

Jarraian, musika-irakasgaiarekin lotutako **zenbait ebaluazio-tresna** aipatuko ditugu:

- **Proiektu artistiko-musikalak:** ikasleek beren erantzunak proiektatu behar dituzte, proposamen jakin batzuetan oinarrituta. Atal honen barruan prestakuntza-lanak, prozesu-lanak edo azken produktuaren bariazioak sar daitezke.
- **Lanerako koadernoak:** koaderno horietan, lanarekin lotutako ideiak, eskolako eta kanpoko jarduerari buruzko oharra, eta abar jasoko dira. Hausnarketa-lana baloratzea ahalbidetzen du eta aurrerabidearen ebidentziak erakusten ditu. Gainera, jardueren garapena idatziz jartzea ikasitakoa erakusteko modu ona da.
- **Ikusizko, ahozko edo idatzizko aurkezpenak:** banakoak edo taldekoak izan daitezke, eta lanak prozesuan zehar edo horiek bukatutakoan baloratzea ahalbidetzen dute. Sorkuntza-prozesuaren eta taldeko gainerako kideen ekarpenen garrantzia kontuan hartzea bultzatzen dute.
- **Zenbait saioen zuzeneko behaketako fitxak:** batez ere, interpretazio musikal nabarmenagoak (kantua, praktika instrumentala, dantza) egin diren saioak, zenbait aldagai erreferentziatzen hartuta, hala nola arreta, ordena, parte-hartzea, entzuketa, jarrerak, sormena, adierazkortasuna, komunikazioa, motibazioa, konfiantza...

- **Idatzizko proba globalak:** denbora-tarte luzeagoan lortutako ezagutzak bateratzeko.
- **Autoebaluazio-txantiloak:** lan jakin bati buruzkoak izaten dira. Indargunez eta ahulgunez kontzientzia hartzea ahalbidetzen dute, baita aurrerapen artistikoetan norberaren garapena eta sormenaren garapena antzematen ere.
- **Lan-kontratuak:** irakasleen eta ikasleen arteko hitzarmenak dira. Horietan, bi alderdiek adostutako zenbait baldintza betetzeko konpromisoa hartzen dute.
- **Lan-karpeta edo paper-zorroa.** lan baten etapa guztiak jasotzen ditu, hasieratik bukaerara. Formatu askotan egin daiteke, erabilitako elementu motaren arabera, adibidez: partitura interpretatuak, idazkiak, lanak... Pertsona bakoitzaren aurrerabidea balioesteko aukera emango diguten lan-prozesuko elementuak dira.

6. MATERIALEN ETA SEKUENTZIA DIDAKTIKOEN EREDUAK

Atari tematikoak, entziklopediak eta webgune tematikoak.

- *El atril*. Musikaren munduari buruzko webgune orokorra. <http://www.el-atril.com/>
- *Teoría*. Musikaren teoriari buruzko guztia, zenbait kontzeptu (melodia, harmonia, erritmoa, notazioa, eskalak eta abar) lantzeko lineako ariketekin. <http://www.teoria.com/indice.htm>
- *Melómanos*. Musikari buruzko nolabaiteko entziklopedia birtuala. <http://www.melomanos.com/academia.htm>
- *Cuéntame una ópera*. Ipuin musikalak, egokitutako argumentuak dituzten operak eta jolasak lantzeko webgunea. <http://www.cuentameunaopera.com/>
- *MOS, musika-hezkuntzari buruzko atari tematikoa*. Irakasgai honi loturiko online baliabideak eta jarduerak ditu. <http://recursos.cnice.mec.es/musica/index.php?PHPSESSID=f1dfe1f75109c875f7986a1ce1cf977a>
- *Música, rincón didáctico*. Extremadurako Juntaren musika-ataria da, eta ikasgelarako baliabide ugari dauzka. http://rincones.educarex.es/musica/index.php?option=com_frontpage&Itemid=1
- *La caja de música*. Kultura zientifikoa eta musika lantzeko jarduerak barne hartzen dituen webgunea. http://www.xtec.cat/centres/a8019411/caixa/index_es.htm
- *CSICeko Zientzia Museo Birtualeko akustika aretoa* <http://museovirtual.csic.es/salas/acustica/sonido1/ini.htm>
- *DivulgaMat, matematikaren dibulgaziorako zentro birtuala*. Matematika eta musika lantzeko zenbait jarduera ditu <http://divulgamat.ehu.es/weborriak/Cultura/Musika/index.asp>

Webquestak

- *Instrumentos musicales del mundo*. Victoria Pérez Caro. http://www.phpwebquest.org/wq2/miniquest/soporte_tablon_m.php?id_actividad=5578&id_pagina=1
- *Conocer los instrumentos*. Vega Martín eta Alicia Carballo <http://knowcat.ii.uam.es/NNTT/users/u177/Document273/webquest2.html#tarea>
- *Los instrumentos de la orquesta*. Alicia Ortega. <http://www.juntadeandalucia.es/averroes/ieslaribera/musica/webquestorquesta.htm>
- *Orquesta*. José Miguel Pérez http://phpwebquest.org/wq25/webquest/soporte_derecha_w.php?id_actividad=44337&id_pagina=1
- *La voz humana*. Alicia Ortega. <http://www.juntadeandalucia.es/averroes/ieslaribera/musica/voz/voz.htm>
- *El sonido*. Gonzalo Mora <http://www.terra.es/personal2/gonzaloylola/Segundo-tema-4/sonido.htm#preguntas>
- *Contaminación acústica*. Remedios Alberto <http://personal.auna.com/musica2006/Webquestruido/profesor.htm>

- *Componer una canción.* Carmen Miró.
<http://www.xtec.net/~cmiro12/wq/m3/introdc.htm>
- *Helmuga: Mozart.* Nerea Terán
<http://www.saretik.net/mozart/HelmugaMozart/index.htm>
- *Arriagaren aztarnen bila.* Nerea Terán
<http://www.saretik.net/arriaga/Arriagaren%20aztarnen%20bila/index.htm>
- *Aita Donostiari buruzko altxorraren bila.* Nerea Terán
<http://www.saretik.net/aitadonostia/aita%20donostiari/index.htm>
- *Viajando con Gershwin.* Carmen Miro
http://www.xtec.es/~cmiro12/gershwin/gershwin_castv02/index.html
- *La música contemporánea.* Victoria Pérez
http://www.juntadeandalucia.es/averroes/~41009019/musica/documentos/3eso/LA_MUSICA_A_CONTEMPORANEA_archivos/LA_MUSICA_CONTEMPORANEA.htm#introducción
- *El inicio musical.* Ramón Doménech
http://www.catedu.es/crear_wq/wq/home/628/index.html
- *El barroco.* Isidro Vidal <http://www.telefonica.net/web2/isidrovidal/WQ/barroco/index.htm>
- *El clasicismo musical.* Remedios Alberto
<http://personal.auna.com/musica2006/Clasicismo/index.htm>
- *El impresionismo musical.* Isidro Vidal
<http://www.telefonica.net/web2/isidrovidal/WQ/impresion/index.htm>
- *Historia de la notación musical.* Adriana Cristina García
<http://sites.google.com/site/aulamusicaldeadriana2/cazadeltesoro>
- *El detective musical.* Antonio Gallego
http://www.iesdolmendesoto.org/zonatic/webquest_cantigas/index.html
- *El blues.* Ramón Llanes
<http://www.xtec.cat/~rllanes/WQ%20Blues/WQ%20Blues%202/index.htm>
- *Funciones sociales de la música vocal actual.* Yolanda Villa
<http://web.educastur.princast.es/cursos/cursowqp/aplic/yolanda%20villa/index.htm>
- *Jazz en la Web.* A. Sánchez
<http://web.educastur.princast.es/cursos/cursowqp/aplic/alfonso%20sanchez/index.htm#intr>
- *Rock and love.Los orígenes de tu música.* Juani Salvador Carmona
http://www.phpwebquest.org/wq25/caza/soporte_derecha_c.php?id_actividad=20222&id_pagina=1
- *Cuatro webquest de música de la Junta de Andalucía*
http://www.juntadeandalucia.es/averroes/recursos_informaticos/andared02/webquests_musicales/index.htm
- *La música en el cine.* Remedios Alberto
<http://personal.auna.com/musica2006/Cine/index.htm>
- *La música en el cine.* Caza del tesoro.
http://www.juntadeandalucia.es/averroes/~41009019/musica/documentos/4eso/LA_MUSICA_A_EN_EL_CINE_archivos/LA_MUSICA_EN_EL_CINE.htm#introducción
- *El mundo de la radio.* Almudena Ocaña
http://www.phpwebquest.org/wq/emisora_radio/index.htm

7. REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS

ALSINA, P., DÍAZ, M., GIRÁLDEZ, A., IBARRETXE, G., (2009), El aprendizaje creativo. *Colección Ideas Clave*. Barcelona: Grao.

- Liburu horrek sormena nola garatzen eta jorratzen den ulertzen laguntzen du. Arreta ikaskuntza eta irakaskuntza sortzailea estimulatzeko beharrea eta berrikuntza eta aldaketen garrantzia frogatzean jartzen du.

GIRÁLDEZ, A., (2007), Competencia cultural y artística. Madrid: Alianza.

- Liburuan, LOEk gaitasun honekin lotuta eginiko proposamenari dimentsio berria ematen zaio. Gaitasun hori lortu duten ikasleen rola definitzen da, ikasgelako edukien eta aztertzen den gaitasunaren arteko erlazioak bilatzen dira, eta gaitasun horretan IKTak integratz eari buruzko atal bat du.

MANEVEAU, G., (1993), Música y Educación. Madrid: RIALP.

- Liburu horretan, musikaren pedagogiari buruz hausnartzen da eta arlo horretan sartzera, informatzera eta prestatzera zuzendutako zenbait faktore berrikusten dira, ekintza musikalaren helburua aberaste pertsonaleko iturri gisa definituz.

PASCUAL MEJÍA, P., (2002), Didáctica de la Música. Madrid: Pearson

- Liburu horretan, eskola-inguruneetako musikaren irakaskuntzako eta ikaskuntzako arazoak jorratzen dira, eta musika-hezkuntzako profesional guztiei zuzenduta dago. Musika-hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoak, metodologia nagusiak eta musika-hezkuntzaren eduki espezifikoen analisi bat barne hartzen ditu.

ZARAGOZA, J.L., (2009), Didáctica de la música en la educación secundaria. Competencias docentes y aprendizaje. Biblioteca Eufonía. Barcelona: Grao.

- Liburu horrek hezkuntza-etapa honetako musika-hezkuntzaren ikuspegi orokorra eskaintzen du. Hausnarketa-jarduerari, metodo didaktikoaren kontzientziari, estrategiei eta musikaren ikaskuntzari buruzko gakoak eskaintzen ditu, ikasgelako erabilera arruntei lotuta.

V.V.A.A., (2007), Competencias en educación musical. Eufonía. Barcelona: Grao.

- Musikaren didaktikari buruzko aldizkari horren monografiko bat da, gaitasunen kontzeptuari eta horiek musikaren ikaskuntza eta irakaskuntzarekiko duten erlazioari buruzkoa. Gaitasunen araberako ikuspegia jorratzen du, bai irakaskuntza orokorrari lotuta, bai erregimen bereziko irakaskuntzari lotuta.